

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA EDUCACIÓN
GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Graduado o Graduada en Maestro en Educación Primaria
Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua

Trabajo Fin de Grado
Gradu Bukaerako Lana

GIZA GORPUTZA LEHEN HEZKUNTZAN IRAKASTEN PROIEKTU BIDEZKO IKASKUNTZAREN BIDEZ

Ikaslea: Itxaso Estanga Ochandorena

Tutor/Tutorea: Eneko Gamarra Ruiz de Larramendi

Departamento/Saila: Giza eta Hezkuntza zientziak

Campo/Arloa: Gizarte zientzien didaktika

Ekaina, 2023

LABURPENA ETA GAKO-HITZAK

LABURPENA

Jarraian garatzen den Gradu Bukaerako Lanean Lehen Hezkuntzan giza gorputza nola landu Proiektu Bidezko Metodologiaren bidez azaltzen da. Giza gorputzaren ikaskuntza haurtzarotik ematen den gai bat izanik, haren ikaskuntza esanguratsua ezinbestekoa da. Horretarako, gaur egungo metodologia aktiboen erabilera oso lagungarria da.

Proiektu honetan metodologia aktibo ugarien presentzia nabaria izan da baina Proiektu Bidezko Ikaskuntza izan da nagusia. Bertan, ikasleen motibazioan zer nolako eragina duen eta ikaskuntza esanguratsuagoa ematen den frogatu nahi izan delarik. Horretarako, Lehen Hezkuntzako ikasle batzuekin giza gorputzaren inguruko proiektu bat aurrera eraman da.

Proiektua egin ondoren, ezarritako helburuak bete diren ikusi ahal izateko, ebaluazio eta analisi proposizional bat erabili da. Jarraian, ikusi ahalko den bezala, planteaturiko proiektua sorturiko helburuak betetzeko erabilgarria dela frogatzen da.

Hitz gakoak: *Giza gorputza; PBI; Metodologia aktiboak; Ikaskuntza esanguratsua; Motibazioa.*

ABSTRACT

In the Final Degree Project which is developed in the following paper, it is explained how to teach the human body in Elementary Education through Project Based Learning. Since the development of knowledge of the human body is a subject which is taught since preschool, its significant learning is fundamental. In order to do this, the use of the current active methodologies are of great help.

In this project numerous active methodologies have been present, but Project Based Learning has been the most prominent. Through this, the desire was to show how this affects the students' motivation while at the same time its most significant learning. In order to do this, a project about the human body has been carried out with Elementary students.

Once the project was finished, a propositional evaluation and analysis have been used to demonstrate if the established aims were reached. Afterwards, it is clear that the proposed project is useful in order to achieve the proposed goals.

Keywords: *Human body; PBL; Active methodologies; Significant Learning; Motivation.*

RESUMEN

En el Trabajo Fin de Grado que se desarrolla a continuación, se explica cómo trabajar el cuerpo humano en Educación Primaria a través del Aprendizaje Basado en Proyectos. Dado que el aprendizaje del cuerpo humano es un tema que se da desde la infancia, su aprendizaje significativo es fundamental. Para ello, el uso de las actuales metodologías activas son de gran ayuda.

En este proyecto han estado presentes numerosas metodologías activas, pero el Aprendizaje Basado en Proyectos ha sido la más dominante. A través de ello se ha querido demostrar cómo afecta a la motivación de los estudiantes al igual que a su aprendizaje más significativo. Para ello se ha llevado a cabo un proyecto sobre el cuerpo humano con algunos alumnos de Educación Primaria.

Después del proyecto, se ha utilizado una evaluación y análisis proposicional para ver si se han cumplido los objetivos establecidos. A continuación, como se puede apreciar, se demuestra que el proyecto propuesto es útil para cumplir con los objetivos planteados.

Palabras clave: *El cuerpo humano; ABP; Metodologías activas; Aprendizaje significativo; Motivación.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. EREMU TEORIKOA
 - a. PROIEKTU BIDEZKO IKASKUNTZA
 - i. Proiektu bat zer da?
 - ii. Proiektu Bidezko Ikaskuntza (PBI)
 - iii. PBIren historia
 - iv. PBIren ezaugarriak
 - v. PBIren faseak
 - vi. PBIren abantailak
 - vii. PBIren desabantailak
 - viii. Irakasleen eta ikasleen rola PBI
 - b. GIZA GORPUTZA
 - i. Giza gorputza historian zehar
 - ii. Giza gorputzaren aspektu orokorrak
 - iii. Giza gorputza Lehen Hezkuntzan
3. EREMU PRAKTIKOA
 - a. HELBURUAK
 - b. ZALANTZAK
 - c. PROIEKTUA
 - i. Testuingurua
 - ii. Konpetentziak
 - iii. Oinarrizko jakintzak
 - iv. Metodologia
 - v. Ikaskuntza egoerak
 - vi. Ebaluazioa
 - d. EMAITZAK
 - e. HAUSNARKETA
 - f. ONDORIOAK
4. ERREFERENTZIAK
5. ERANSKINAK

1. SARRERA

En el siguiente documento se enseña cómo enseñar el cuerpo humano en Educación Primaria a través de las metodologías activas. En concreto a través del Aprendizaje Basado en Proyectos. Este proyecto se llevará a cabo con el alumnado de primero de Educación Primaria en un colegio de Doneztebe, concretamente en el Colegio Público San Miguel. El proyecto estará específicamente diseñado para estos alumnos de primero de primaria.

En primer lugar, se explicará el área teórica. Aquí se dará información teórica sobre el Aprendizaje Basado en Proyectos y el cuerpo humano. Por ejemplo, se dará información detallada sobre en qué consiste un proyecto, su historia, sus características, las fases, los beneficios y las desventajas y el rol del docente y el de los estudiantes en dicha metodología. Respecto al cuerpo humano, se mencionará la influencia que ha tenido a lo largo de la historia, sus aspectos generales y la información teórica sobre su aprendizaje en Educación Primaria.

A continuación se explicará el área práctica. Aquí se explican los objetivos marcados durante el proyecto, las dudas creadas, el proyecto en su totalidad (el contexto, las competencias, los conocimientos básicos, la metodología, las situaciones de aprendizaje y la evaluación), los resultados obtenidos, la reflexión posterior y las conclusiones extraídas.

Se describirán también la secuencia de las sesiones y las actividades que se realizarán en cada sesión. Finalmente, se expondrá la bibliografía y los anexos necesarios, es decir, se harán referencias a las fuentes utilizadas para el trabajo.

2. EREMU TEORIKOA

a. PROIEKTU BIDEZKO IKASKUNTZA

i. Proiektu bat zer da?

Hainbat adituk esaten duten modura, proiektu bat lan bat baino gehiago da. Proiektu bat:

“Proposamen globalizatua da, taldea modu kooperatiboan antolatzen denean arazo bati erantzuna emateko edo amaierako produktu bat sortzeko, talde plan bat jarraituz.” (Agustín de la Herrán, 2011).

“Bihotzarekin egindako jarduera aukeratuak dira, taldean garatzen direnak.” (W.H.Kilpatrick, data gabeko artikulua).

“Helburu zehatza duten eta haurrarentzat esanguratsuak diren jarduerak dira, hots, haurraren interesa pizten dutenak.” (John Dewey, 1916).

Proiektuak esperientzia intentsiboak dira zeinetan ikasleek erakarriak sentitzen dira egin beharreko jardueretaz hauek ikaskuntza prozesurako garrantzitsuak izanik. (Fleming, 2000).

Honako hauek dira proiektu didaktiko baten ezaugarriak: interesa pizten duten galdera edo erronka batetik abiatzea, ikerketa egitea, errealitatearekin lotura izatea, erabakiak hartzea derrigortzea, ebaluazio hezigarria izatea eta amaierako produktua sortzea. (Ilzarbe, 2022). Nahiz eta bukaerako helburu bat egon eta garrantzizkoa izan, proiektua aurrera eramateko egiten den prozesuari ere garrantzia eman behar zaio. (Fischer, 2017).

Proiektu bat esanguratsua izango da ikasleek ulertzen badute egin beharreko lana garrantzitsua dela. Modu honetan, ikasleek garrantzia emango diote lanari eta ongi egin nahiko dute. (Larmer eta Mergendoller, 2010).

Ezaugarri hauez gain, proiektuak hainbat estruktura eta testuinguru desberdinetan garatu daitezke. Hala nola, bakarka, talde txikeitan, gela guztiaren artean, gelatik kanpo,

gelan, etab. (Fleming, 2000). Azken finean, ikaskuntza ikusi daiteke prozesu metagarri, autoerregulatu, bideratua, kolaboratzailea edota indibidual gisa. (Van den Bergh et al, 2006).

Proiektu bati hasiera emateko, galdera interesgarriak eta pizgarriak egin behar dira ikasleei. Modu honetan, beste galdera berriak sortuko direlako, harremanak eraikitzen laguntzen dutelako edota metaforak eta analogiak eragiten dituztelako. (Ilzarbe, 2022). Gainera, galdera horien erantzunak izango dira proiektua gidatuko duten ardatzak. Alegia, proiektu bat aurkezterakoan, hartzailea gai izan behar da ulertzeko zertaz doan proiektua hasierako galdera bati erantzunez soilik. (Battle, Aymerich, Mendía eta Torregrosa, 2022). Galdera on batek interesa piztuko du hartzailearengan eta proiektua ezagutzeko grina sortuko du.

Proiektuek, hainbat onura ekartzen dituzte, batez ere ikaskuntza prozesuan, hala nola: konplexutasuna eta diziplinartekotasuna ahalbidetzea, informazioa kudeatzen eta antolatzen ikastea, ikasleen aniztasuna zaintzea, kooperatzen eta taldean lan egiten ikastea eta ikaskuntza esanguratsua bultzatzea. (Ilzarbe, 2022).

ii. Proiektu Bidezko Ikaskuntza (PBI)

“El maestro debe favorecer el desarrollo del alumno, de su autonomía, de su nivel de relaciones con el medio físico y social, de su capacidad de observación y de su conocimiento corporal. Un modelo para conseguirlo son los proyectos de trabajo.” (Gilpérez, 2009).

“El uso de proyectos en la educación superior permite a los estudiantes participar activamente en su aprendizaje al diseñar, planificar, controlar y evaluar sus capacidades en un contexto real.” (Barrera, Venegas-Muggli eta Ibacache, 2022).

Proiektu Bidezko Ikaskuntza hezkuntza proposamen berritzaile bat da zeinetan ardatz nagusia ikaslea den eta ikaskuntza haren inguruan oinarritzen da. Ikaskuntza hori esanguratsua delarik eta hainbat gaitasun eta kompetentzia garatzea ahalbidetzen duelarik. (Rojas, 2010). Ikaskuntza tradizionalaren aurrean aukera desberdina aurkezten du, norabide bakarreko (irakasle-ikasle) irakaskuntza alde batera utziz eta kalitatezko ikaskuntza eskainiz (Sáez, 2012).

Beste hitz batzuetan, PBI metodologia edo estrategia didaktikotzat hartzen da zeinetan, modu praktikoa batean, hainbat konpetentzia desberdinen garapena ematen den honako aspektu hauen antolaketa logikoaren ondorioz: edukiak, esperotako ekintzak, baliabideak, estrategiak, material didaktikoak eta prozesuaren ebaluazioa. (Hurtado, 2019). Helburu nagusietarikoa kooperazio eta partaidetza giroa sortzea da (Martín eta Rodríguez, 2015).

Laburbilduz, Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren bidez, ikasleek erronka bat aurrera eramaten dute, hainbat intereseko, talde eraginaren ondorioz. (Sabaté eta García, 2012).

Metodologia honek ahalbidetzen die ikasleei ikastea eginez eta haien ideia propioak aplikatuz. Ikasleek errealitateko egoeren inguruko jarduerak burutzen dituzte ondoren bizi behar diren gizartean mesedegarriak izango direnak. (Krajcik eta Blumenfeld, 2006).

Ikaskuntza modelo honek ahalbidetzen du ikasleek errealitatea interpretatzea haren osotasunean. Gaia ikasleek aukeraturikoa edota haien interesekoa izaten da, horrela, haien motibazioa eta interesa pizteko. PBIen bidez, ezagutza berri bat lortu edota ezagutza bat zabaltzeko aukera ematen da partehartzaile guztien ekarpenei esker. Guztiok egiten dituzte ekarpenak eta guztiok ikasten dute besteengandik. (Gilpérez, 2009).

Hainbat ikuspegi desberdinetatik ikus daitezke Proiektu Bidezko Ikaskuntza. Hala nola: heziketa metodo, ikaskuntza estrategia edota lan estrategia gisa. Haren bereizgarrietako bat irakasle eta ikasleen arteko lankidetzaren errealitateko gaien inguruan da. Horretarako, talde integratuak sortu behar dira, heterogeneoak, sortzen diren hainbat erronkei aurre egiteko. Desberdintasun horiek aukera handiak ematen dituzte ikaskuntzarako eta ikasleei prestatzen die etorkizunean edozein egoerei aurre egin ahal izateko. (Galeana, 2016).

Modu honetan, metodologia honek perspektiba berri bat eskaintzen du zeinetan ahalbidetzen duen ikasgaiak konpartimentu hermetikoak izan beharrean haien arteko erlazio bat sortzea kontzeptu amankomunen bidez, praktikaren bidez eta ikaskuntza esanguratsu bat sortuz. (Martínez, Tejedor eta Arenaza, 2022). Beraz, ikasleek erronkei aurre egin behar diete, espero ez dituzten oztopoak gainditu eta ziurgabetasunezko momentuak igaro, ikaskuntza bizipen-modu batean ematen delarik. (Wurdinger eta Carlson, 2010).

iii. PBIren historia

Proiektu Bidezko Ikaskuntzak onarpena irabazten joan da urteetan zehar gaur egungo metodologia erabilienak bilakatu arte egungo hezkuntza sistemetan. (Rodríguez, 2015). Gainera, azken urteetan gure herrialdean batez ere arrakasta handia izan du. (Iribertegui Iñurrieta, 2014). Haren garrantzia eta egungo egoera ulertu ahal izateko ezinbestekoa da haren bilakaera ulertzea eta jakitea.

Horretarako, aipatzekoa historian zehar izandako hiru pertsona nabarmen: Ovide Decroly (1871-1932) ikasleen interesen aldekoa, John Dewey (1859-1952) jarduera didaktikoak esperientzian eta praktikan oinarritzearen aldekoa eta Maria Montessori (1870-1952) helduen rola aldatzearen aldekoa eta ikasleen aniztasuna errespetatzearen aldekoa. (Ilzarbe, 2022).

Metodologia hau konstruktibismoan oinarritzen da, Vygotsky, Bruner, Piaget, etab. bezalako lanetan. (Karlin eta Viani, 2001). Baina, Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren sustraiak XX.mendearen hasierako Eskola Berria hasieran, eta zehatzago, Dewey-ren eta Kilpatrick-en obran aurki ditzazkegu batez ere. Azken honek metodologia hau “Proiektuen metodoa” izeneko lanean definitu zuen lehen aldiz. Haren arabera, proiektua interesgarria den zerbait ebazteko problema, burutu beharreko zeregina eta askatasunez hautatzen den lan-plana da. (Nazabal Zaratiegui, 2014).

Esaldi bat oso ongi laburbiltzen duena metodologia honen ideia ondorengo hau da:

“La educación apoyada en el constructivismo implica la experimentación y la resolución de problemas y considera que los errores no son contrarios al aprendizaje, sino más bien la base del mismo.” (Ausubel, 1976).

Esan bezala, metodologia honen aitzindaria 100 urte atzerago kokatzen dugu historian, John Dewey (1952) filosofo eta hezitzailearekin. (Krajcik eta Blumenfeld, 2006). Deweyen ustez eskolak aukera eman behar du hurrei ezagutzak egiaztatze eta arazoak konpontzeko gaitasun tresnak garatzeko. (Nazabal Zaratiegui, 2014). Bere meritua izan zen gisa honetako erreforma bat bultzatzea hezkuntzan eta “ikasten ikastea” ideia aurrera eramatea. (Nazabal Zaratiegui, 2014).

William H. Kilpatrickeri dagokionez, ulertu zuen irakaskuntza egoki baterako beharrezkoa dela ikasleei esperientzia esanguratsu eta interesgarriak eskaintzea. (Heiblum

eta G. Medrano, 2010). Aipatu den bezala, Kilpatrick (1871-1965), Deweyekin batera, PBlaren sortzaile nagusitzat hartzen da. Berak sorturiko metodologia ez da gaur egun erabiltzen den berdina hezkuntza zentroetan. (Pérez, Fonseca eta Lucas, 2021).

Lópezek (2018) aipatzen duen bezala, Kilpatrickentzat garrantzitsuagoa zen ikasleek esperimintatzea motibazio intrintsekoa estrintsekoa baino ikasterako orduan. Ikasleek ez dute ikasi behar betebeharrak bat delako baizik eta irakaskuntza motaren ondorioz, ikasleengan ikaskuntza dibertigarri bat eta motibatzaile bat sorrarazten delako. (Pérez, Fonseca eta Lucas, 2021). Horretarako, PBI erabili zuen haren ikasleekin. Nahiz eta metodologia honen ideia sortzailea ez izan, ideia hau argitu zuen eta ondorioz, sustatu zuen.

Lehenago aipatu izan den bezala, pedagogia konstruktibistak pisu handia izan du PBlren lorpenean. Pedagogo konstruktibista batzuentzat, ikaskuntza ez da prozesu individual bat soilik baizik eta prozesu soziokultural bat ere. (Pérez, Fonseca eta Lucas, 2021).

iv. PBlren ezaugarriak

Alditu batzuek aipatzen duten bezala, metodologia honen ezaugarriak azaltzerakoan, ikasleetan oinarritutako irakaskuntza prozesua dela adierazten dute, haien interesak kontuan hartuz eta inplikazioa eskatuz. (Pozuelos eta Rodríguez, 2008). Sánchezen (2013) ustez aldiz, ikasleen interesak kontuan hartuz, parte hartzaileen ikasteko motibazioa eta ezagutzak sustatzen dituela aipatzen du.

Ainhoa Rodríguezek Gradu Amaierako Lanean (2020) aipatzen duen bezala, Curtisek (2002), PBlren ezaugarri nagusienak honela definitzen ditu:

“Las características más emblemáticas del ABP son: el aprendizaje experiencial, la reorientación de la mirada hacia la globalidad de un fenómeno, el trabajo en grupos colaborativos, el desarrollo de competencias claves, la conexión entre el aprendizaje en la escuela y la realidad y la oportunidad de colaboración para construir conocimiento (Rodríguez eta Vilchez, 2015).

Proiektu bat aurrera eraman ahal izateko, honako beste ezaugarri hauek kontuan hartu behar dira: baliabide materialak, hezkuntza norabide aldaketa eta espazioen ezarpenak. (Martínez, Tejedor eta Arenaza, 2022).

Thomas (2010) eta Vergarak (2015) aipatzen duten bezala, PBlak honako ezaugarri hauek ditu: ikasleen etorkizuneko lanbideekin erlazionaturik dauden egoeretatik abiatzen da; produktu bat sortzeko beharrezkoak diren jardueren planteamendua; ikasleen interes eta beharrei erantzuten die; sorturiko emaitza baliozkoa da; ikasleek autonomiarekin akzio espezifikoak garatzen dituzte; talde lana sustatzen da. (Hurtado, 2019).

Larmer eta Mergendollerrek (2010) "Seven Essential for Project-Based Learning" lanean aipatzen duten harira aldiz, haintzat honako elementu hauek ezinbesteko ezaugarriak dira Proiektu Bidezko Ikaskuntza ezartzeko:

1. Jakiteko grina
2. Gidatzeko galdera bat
3. Ikasleen hitz eta aukera
4. 21.mendeko trebetasunak
5. Ikerkuntza eta berrikuntza
6. Erreakzio eta zuzenketa
7. Publikoki aurkezturiko amaierako produktu bat

Gonzálezek (2018) haren lanean esaten du bizi garen gizarterako prestatzeko modu bakarra gizartean parte hartuz dela. Garrantzitsua da ikastea eginez. Deweyek esaten duen antzera "toda auténtica educación se efectúa mediante la experiencia". (Barriga, 2006). Barriga eta Hernández (2010) aipatzen dute PBlaren estrategiak honako ezaugarri bereizgarriak dituela: estrategia zuzendu bat da, emaitza konkretu baterantz bideraturik dago, jarduera kopuru bat du zeinetan ikasleek modu aktibo batean parte hartzen ahal duten, lan kooperatiborako gaitasunak sustatzen ditu eta zeharkakotasuna nabaria da.

Azkenik, Nerea Munarrizek (2013) haren lanean azaltzen du harentzat Proiektu Bidezko Ikaskuntzak jorratu beharreko ezaugarriak:

- Ikasleengan pentsatuz, ikasleei zuzendutakoak
- Erabat zehaztuak, hasiera, garapena eta amaiera
- Ikaslearentzat esanguratsuak diren edukiak

- Mundu errealeko arazoak
- Lehen mailako inbestigazioa
- Helburu zehatzeko eta Instituzioen Hezkuntza Proiektuarekin bat
- Produktu baten sorrera, audientziarekin elkarbanatu ahal dena

Laburbilduz, aditu guzti hauek eta lan guzti hauetan azalduriko ezaugarriak berdinak edo antzekoak dira eta ondoriozta dezakegu PBIen ezaugarri orokorrak ikasleen interesetatik abiatuta produktu final bat sortzea talde lana sustatuz direla.

v. PBIren faseak

Ikaskuntza testuinguruak proiektuetan oinarriturikoak, honako oinarritzko bost faseak jarraitzen dituzte (Krajcik eta Blumenfeld, 2006):

1. Galdera batekin hasi (lortu beharreko erronka bat)
2. Ikasleek galderatik abiatuz haien ikerkuntzak eta galdera propioak sortu eta garatu
3. Ikasleek, irakasleek eta kanpoko pertsonak parte hartzen dute, talde lana
4. Erronka lortzeko beharrezkoak diren baliabideen erabilera
5. Hainbat produktu sortzen dira hasierako galderaren harira

Martínez, Tejedor eta Arenazak (2022) haien lanean azaltzen den bezala, honako fase hauek bete behar ditu Proiektu Bidezko Ikaskuntzak esanguratsua izan dadin:

1. Gaiaren aukeraketa eta galdera
2. Taldeen banaketa
3. Amaierako produktuaren definizioa
4. Planifikazioa
5. Ikerketa
6. Analisisa
7. Produktuaren sorrera
8. Produktuaren aurkezpena
9. Hasierako galderaren erantzun kolektiboa
10. Ebaluazio eta autoebaluazioa

Baina, metodologia honen faseak eta faseen antolaketa hau autorearen arabera izango da. Alde batetik, Majók (2010) lau fase bereizten ditu: gaiaren hautaketa, planifikazioa, informazioa biltzea eta kontzientziazte fasea. Beste alde batetik, Toppeltek eta

Lindemannek (2001) sei fase bereizten dituzte: informatu, planifikatu, adostu, egin, kontrolatu eta hausnartu/ebalatu. Autore gehiengeok aldiz, hiru fase nagusi bereizten dituzte: prestaketa, garapena eta komunikazioa. (Rodríguez, 2020).

Ordea, fase gehiengeok amankomunak edota fase batzuk beste batzuen barne hartzen dira, beraz, autore gehiengeok zati berdinak erabiltzen edota kontuan hartzen dituzte. (Rodríguez, 2020).

vi. PBIren abantailak

PBlak ikaskuntza elementu hauek sustatzen ditu ikasleengan: planifikatzeko gaitasuna, entzuteko gaitasuna, negoziatzeko gaitasuna, ebaluatzeko gaitasuna eta planteamendurako gaitasuna. (Cobo Gonzales eta Valdivia Cañotte, 2017).

Hainbat adituk azpimarratzen dituzte Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren abantailak. Hala nola, talde lanean aritzeko gaitasunaren garapena, ikaskuntza autonomia, autoebaluatzeko gaitasuna, denboraren kudeaketa edota ahozko eta idatzizko gaitasunaren garapena. Haez gain, ikasleen motibazioaren handitzea ere azpimarratzekoa. Irakasle asko izan dira metodologia hau praktikan jarri dutenak eta abantaila hauek identifikatu dituztenak. (Molina-Carmona, Villagrà-Arnedo, Gallego-Durán eta Llorens Largo, 2020).

Gainera, ikaskuntza prozesua PBlan oinarritzeak hainbat onura dakartza. Adibidez, irakasleen rola aldaketa, aginteria utziz, ikasleek euren proiektuak antolatzen ikastea, ikasleak haien buruaren jabe eta arduradun bilakatzea (Dickinson et al, 1998), autonomia eta ondorioz, konfidantza handitzea. (Rodríguez Minguito, 2020).

Lehenagotik aipatu izan den bezala, ikasleei euren intereseko gaiak aukeratzen uzten zaienez, haine interesa handitzen doa eta honek ikasteko motibazioa bermatzen du. Bestalde, metodologia honen ondorioz, ikasleek pentsamendu zientifikoa lantzen dute, ikaskuntza ikertzailea sustatuz. (Rodríguez Minguito, 2020). Brysonnek (1994) esaten zuen bezala, ikasleek metodologia honetan egin beharreko jarduerak taldeka egiten dituztenez, era kooperatiboan lan egin behar dute eta haien artean ezagutzak eraikitzen doaz.

Proiektuen beste abantaila garrantzitsua eta aipatzekoa, sortzen diren talde heterogeneoak. Ikasle ezberdinek osatzen dituztenez lan taldeak, aniztasuna bermatzen da. (Barab eta Landa, 1997).

Beste onura bat ikasleek garatzen duten pentsamendu kritiko, kontzientzia globala eta arazoak ebazteko gaitasunak garatzeko aukera. (Boss, 2013). Modu honetan, PBIren helburu nagusienetako bat, ikasleak hobeto prestatuz etorkizuneko bizitzarako zein lanpostuetarako. (Dickinson et al, 1998).

Hona hemen hainbat adituek burututako ikerketa ezberdinetan lorutirko emaitza positiboak PBIren inguruan (Iribertegui Iñurrieta, 2014):

- Ikasleen ikaskuntzarekiko gogobetetzea hobetzen du eta hauek bizitzan topatuko dituzten egoerei erantzuna emateko hobeto prestatzen ditu. (Willard eta Duffrin, 2003).
- Ikasleek, taldean lan egiteko gaitasuna hobetzen dute, ahalegin, motibazio eta interes handiagoa aurkezten dute, kontzeptuetan sakontzen dute, akatsak modu azkarrago batean antzematen dituzte eta bai irakasle eta bai klasekideekin harremanak hobetzen dituzte. (Marínez et al, 2007).
- Ikasleek emaitza hobeagoak lortzen dituzte, modu autonomoan ikasteko gaitasuna lortzen dute eta ikasitako denbora luzeagoz gogoratzen dute. (Mioduser eta Betzer, 2007).
- Aurretiko jakintzak aktibatzen ditu, arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzen da eta arrazonamendu kritikoa, elkareragile soaial eta metakognizioa garatzen dira. (Restrego, 2005).

vii. PBIren desabantailak

Nahiz eta metodologia honek abantaila gehiago izan desabantailak baino, hauek ere badaude. Zailtasun edota desabantaila hauek hainbat arrazoiengatik sor daitezke, hala nola: gaitegiaren aukeraketaren ondorioz, ikasle bakoitzaren aspektu indibidualak, ebaluazio mota eta objetibotasuna eta zuzentasuna ebaluatzerako orduan. (De Albéniz-Iturriga, Pedrero eta Molina, 2021).

Gainera, zailtasun handiena azaltzen da gisa honetako paradigma aldaketa ematen delarik ikasle eta irakasleen artean. Parte hartzeko erresistentziari aurre egin behar ziaio, lan zama handiagoa eskatzen du, desorientazioa azaltzea oso komuna da, batez ere hasieran, koordinazio behar handiagoak eskatzen dira ikasgaien artean, etab. (Molina-Carmona, Villagr -Arnedo, Gallego-Dur n eta Llorens-Largo, 2020).

Azken finean, ohikoa izango da hainbat arazorekin topatzena eta ikasleek hauei erantzuna emateko bide ezberdinak bilatu beharko dituzte. (Rodríguez Minguito, 2020). Baina, esan bezala, gehiago dira onurak kalte egiteak baino.

viii. Irakasleen eta ikasleen rola PBI

Gaur egun, ikaskuntza gelan eta haren inguruan gertatzen denaren menpe dago gelan gertatzen denarena soilik baino. (Flecha, 2009). Horregatik, denboraren poderioz, metodologiak aldatzen doazen heinean, irakasle eta ikasleen rola aldatzen doaz ere.

Proiektu on batek erronka bat suposatzen du. Ikasleei eskatzen die uste dutena baino gehiago egitera, jakintza aplikatzea soilik kontsumitzea baino. Ikasleek erakutsi behar dute ikasi dutena (edukiak), zer egin dezaketen (erakustaldia) eta ze gaitasun berri garatu dituzten. (Fleming, 2000).

Proiektu Bidezko Ikaskuntzan, ikasle, berarentzat ezezaguna den erantzuna duen galdera baten aurreran kokatzen da, egoera nahasi eta desegituratu baten aurrean aurkituz. Horregatik, ikasleek egoeraren “jabe” bilakatzen dira eta ondorioz, haien interesa handituz doa. (Torp eta Sage, 1998).

“Se ha demostrado que los estudiantes quieren ser los ejes y actores principales del aprendizaje.” (Rojas, 2010).

Beraz, irakasleek eta ikasleek metodologia honetan duten rola oso desberdina da, batez ere ikaskuntza metodo tradizionalarekin alderatuz. (Iribertegui Iñurrieta, 2014). Ikasleek arazoei konponbideak bilatu behar dizkiete, ideia desberdinak eztabaidatu, planteamendu desberdinak diseinatu, ondorioak atera eta hasieran planteaturiko galderari erantzun (amaierako produktua) bat eman. (Blumenfeld et al, 1991).

Perspektiba honetatik, ikaskuntza mekaniko eta memoristikoak alde batera uzten dute ikasleek eta iritziak emateko, erabakiak hartzeko, ekintzak planeatzeko, ebaluatuko, estrategiak sortzeko, ardurak hartzeko, etab. aukera dute. (Pérez, 2017).

Irakaslearen rola aldiz, proiektuaren gidari izatea da. Irakaslea “konfort” eremutik atera behar da, urteetan zehar eraikitako eskemak apurtuz. (Pérez, 2017). Ikasleei hasierako erronka planteatu behar die, interesa piztuz eta motibazioa sustatuz. Pausu honetatik aurrera, irakaslea ikasleen gidari eta laguntzaile besterik ez da izango. Ikaslegoa

izango da arazoan murgilduko dena eta bidea eraikiko duena. Irakasleak, esan bezala, laguntzaile lana burutuko du. (Iribertegui Iñurrieta, 2014).

Baina irakaslearen rola ez da hor amaitzen. Proiektua planteatu baino lehen, irakasleak hainbat prestakuntza behar ditu. Hala nola, erabiliko den metodologia oso ondo menperatzea, proiektuan zehar sor daitezken arazoei modu egokian irtenbidea bilatzea eta proiektuaren nondik norako orokorrak eta erabakiak hartzea. (Iribertegui Iñurrieta, 2014).

Itziar Rekalde Rodríguezek (2015) haren lanean aipatzen duen modura, PBIr irakasleak uzten du transmisore hutsa, kultura eta balio sozial tradizionalen erreproduzitzailerik izateari, ikasleen ikaskuntza autonomo eta kolaboratzailearen ekoizle eta bideratzaile izateko. (Rodríguez, 2015).

b. GIZA GORPUTZA

i. Giza gorputza historian zehar

Gizakiak adierazteko gaitasuna duenetik, gorputzaren errealitatearenganako jarrera bat sortu izan du historian zehar. Gaur egun, giza gorputzaren protagonismoa inoiz baino indartsuagoa da (Laín, 1989). Alegia, gizakiaren sorreraren ondorioz eta lehen testigantzen ondorioz, hainbat eta hainbat teoria sortu izan dira giza gorputzaren inguruan, gaur egun oraindik ere sortzen direnak.

Giza gorputzaren sorrera gizakian hasten da eta amaitu, aitzitik usteltzen, egun batzuk geroago (Gudiño Kieffer, 1982). Esan bezala, giza gorputzaren gaia historian zehar presente egon izan da eta eztabaidagarria bilakatu ere. Garaiak igaro ahala, gorputza kontzebitzeko eta ulertzeko modua aldatuz joan da.

Adibidez, psikologia klasikoaren teoriak gorputza objektu bezala hartzen dela dio (Voen Doellinger, 2011).

Aldiz, Errenazimendu garaian giza gorputza eraikuntza mekaniko gisa ulertzen zen. Ondorioz, XV eta XVI.mendeetan ideia hori Europa osoan zehar hedatuz joan zen (Laín, 1989). Prozesu honetan, hiru etapa nabarmentzen dira: Vesalio, Harvey eta Descartes.

Vesalio giza gorputza deskribitzen hasi zen eskeletoaren bidez eta ondoren, eskeletoak osatzen duen guztia (muskuluak, ligamentuak, nerbioak, etab.) adierazi zuen.

Harveyek, anatomia fisiologiak bilakatu zuen eta odolaren zirkulazioa deskubritu zuen. Azkenik, Descartesek, giza gorputzaren fisiologiataz hitz egin zuen (Laín, 1989).

Baina, Pedro Laínek esan zuen bezala, XIX.mende erdialdean giza gorputzaren inguruko kontzeptu bat ezarriko da, ekarpen eta zehaztasun berritzaileekin, zeinak iraungo duen gaur egun ezagutzen dugun kontzeptua arte.

ii. Giza gorputzaren aspektu orokorrak

Giza gorputza gizakiaren konpainiatz ezin da aldenitu, ez eta gizakia giza gorputzaren presentziaz ere (Gudiño Kieffer, 1982). Eider Goñik egindako lanean azaltzen den antzera, gorputza gizakiak munduan zehar ibiltzeko duen garraio-bidea da. Honi esker, norbanakoak gorputzaren kontzientzia hartzen duen heinean, munduaren inguruko kontzientzia garatzen da ere (Merleau-Ponty, 1999).

Gure gorputzaz sortzen dugun irudiari esker, gure gorputza nolakoa den ezagutzen dugu (Palacios eta Hidalgo, 1999). Ondorioz, gorputzaren irudikapenak sortzeak hainbat funtzio nagusi ditu: gorputz-atalen eta osotasunaren arteko erlazio dinamikoa ezagutzea eta gorputz-atal bakoitzak funtzio batekin lotu ahal izatea (Pankow, 1981).

Eduardo Gudiño Kiefferrek adierazten duen bezala, giza gorputza hainbat ataletaz osaturik dago: burua, erraiak, bihotza, hesteak, eskeletoa, hezurak, aurpegia, etab. Atal guzti horiek, gorputza osatzen dutenak, haien kabuz ibiltzen dira inongo baimenik eskatu gabe (Gudiño Kieffer, 1982).

Aurpegia gorputzeko gaineko aldean aurki ditzakegu. Bertan, beste hainbat atal daude. Hala nola, begiak, bekainak, sudurra, masailak, ahoa, ilea (kasu gehienetan), kopeta, ezpainak, hortzak, belarriak, etab. Atal guzti hauek, bakoitzak, haren funtzio espezifiko bat betetzen dute (Gudiño Kieffer, 1982).

Baina, gorputzak beste hainbat atal ditu. Adibidez, toraxa, abdomena eta gorputz adarrek. Toraxa lepoa eta gerriarekin kontaktuan dago eta gerria, abdomenarekin. Bertan, beste atal bat aurki ditzakegu ere, besteak beste, zilborra izenekoa. Azkenik, gorputz adarretan, goikoak, besoak, eta azpikoak, hankak, aurki ditzazkegu (Gudiño Kieffer, 1982).

Laburbilduz, giza gorputza hiru atal nagusi handietan banatu dezakegu (burua, enborra eta gorputz adarrak) eta hiru atal nagusi horien barruan, beste hainbat atal atera ahal ditugu.

iii. Giza gorputza Lehen Hezkuntzan

Maite Dembilio artikulu batean esaten duen bezala, irakasleek ikasleen garapenarentzat mesedegarri izan behar dute. Ikasleen autonomiaz, erlazionatzeko eta behatzeko gaitasunaz arduratu behar dute. Honen harira, oso garrantzitsua da giza gorputza irakasteko metodologia ikasleengan. Batez ere, Haur eta Lehen Hezkuntzan (Dembilio, 2009).

Azken finean, giza gorputzaren ikaskuntza eskolaratzen maila guztietan ematen da gaia gertua eta garrantzitsua baita gizakiarentzat. Baina, zenbait ikerketek erakutsi izan ohi dute haren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan arazoak daudela, giza gorputza azaltzeko erabiltzen den metodoaren ondorioz (Iribertegui Iñurrieta, 2014).

Gizakiak norberaren ezagutza jaiotzen den unetik bereganatzen joaten da. Bizitzako lehen bi urteetan ez da norbanakoaren buruaz ezagutza askorik baina identitate existenzial bat sortuz doa (Mora eta Palacios, 1999). Umeek bigarren urtean zehar aldiz, bere burua ezagutz du objektu bezala eta ezagutza propioa eraikitzen da bakoitzak haren buruaz duen irudia ezaugarriekin aberasten doan heinean. Alegia, norberak haren buruarekiko autokontzeptua sortzean (Palacios eta Hidalgo, 1999).

Giza gorputzaren inguruan ikasleek duten irudia hobetzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari dagokionez, ezinbestekoa da umeen ezaugarriak ulertzea adinaren arabera. Hau da, Hau Hezkuntzako lehen zikloan ikasleek gorputza jolasteko eta esperimintatzeko erreferentzia gisa izaten dute. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, gorputza bigarren plano batera pasatzen da baina esperientzia-eremuarekin kontaktuan jarraitzen du (Gofii, 2018). Lehen Hezkuntzan aldiz, gorputzaren inguruko irudi osatuagoa eta zehatzagoa eraikitzen dute ikasleek.

Arantzazu Iribertegui haren lanean azaltzen duen antzera, Vygotsky (1985), Rogoff (1993), Gardner (1993) eta Bruner-en (1997) lanetan ikusi daitekeen modura, ikasleek Lehen Hezkuntzan giza gorputzaren inguruan eta haien buruaren irudiaren inguruan hainbat hipotesi eta teoria oso finkatuak dituzte (Iribertegui Iñurrieta, 2014).

Giza gorputza irakasterako orduan, azalpenak, gorputzak dituen atal ezberdinen inguruan antolatzen dira. Lehenik deskribatuz orokorrean eta ondoren, atal espezifikoagoen funtzioak azalduz. Beraz, ikasleei gorputzaren inguruko informazioa aparatu desberdinen egitura eta funtzioen gehiketa bezala adierazten da (Cañal, 2008).

Ikasleek gorputzaren perspektiba hau garatu dezaten, hainbat metodologia desberdin daude aurrera eramateko. Irakasleek, umeei haien gorputza ezagutzeko, egitura, propietateak eta funtzionamendua ulertzeko, ezagutza integratu bat eskaini behar dute. Bertan, organoak, sistemak edota prozesu fisiologiko bakoitzaren ikasketa parte hartzen duten funtzio orokorrekarekin (Iribertegui Iñurrieta, 2014).

Alegia, giza gorputza Lehen Hezkuntzan irakasterako orduan, hainbat helburu eta oinarri finko batzuk jarraitu behar dira. Hala nola, ikasleek haien identitate propioa sortzea, ingurune fisikoa behatzen ikastea, giza gorputzaren alerdi orokorrak ezagutzea, gorputzaren atal desberdinen funtzionamenduaz jabetzea, bakoitzak haren buruaz irudia sortu ahal izatea, gorputzaren anatomiaz ikastea, hezur eta muskulu nagusiak ezagutzea, etab. Horretarako, esan bezala, hainbat metodo aplikatu ahal dira. Batik bat, proiektu bidezko ikaskuntza (Díaz eta Asencio, 2018).

3. EREMU PRAKTIKOA

a. HELBURUAK

Azalduriko marko teoriko hau kontuan izanda, jarraian garatuko dudan GBL-an giza gorputzari buruzko proiektu bidezko ikaskuntza kontuan hartuz, proiektu bat aurrera eraman dut.

Proiektu honen helburuak ikasleek proiektua amaitzerakoan erdiestea espero diren lorpenak dira. Proiektuaren helburuetako bat metodologia aktiboen eta hain zuzen ere, PBI-aren erabilera da. Honen bitartez, metodologia tradizionala alde batera utzi eta ikasteko modu berritzaileak lortzea da helburua.

Horretarako, Proiektuen Bidezko Ikaskuntzaren barrenean, beste hainbat metodo desberdin erabiliko dira, hala nola, txokoetan lan egitea, Montessoriren metodologia, disziplina positiboa, bikoteka lana, etab. Alegia, metodologia aktiboak.

Metodologia aktiboekin batera, proiektu honen beste helburuetako bat talde lana eta kooperazioa sustatzea da. Modu honetan, ikasle berritzaileak, autonomoak aldi berean baina kooperatzaileak lortuz.

Azkenik, proiektu honen bidez, Lehen Hezkuntzan ikasten diren ikasgai ugari erabili nahi dira praktikan, hala nola: hizkuntza, ingurunea, plastika, etab.

b. ZALANTZAK

Marko teorikoa ikusita, hainbat zalantza sortzen zaizkit giza gorputzaren ikasketaren inguruan eta proiektu bidezko metodologiari buruz, nire zalantzak hurrengoak izanik:

- Nola eragiten du ikasleen motibazioan PBIak?
- Ematen den ikasketa esanguratsuagoa da metodo honen ondorioz?
- Ikasleen formakuntzarako garrantzitsua da proiektua?
- Ikasleek proiektu bidezko ikaskuntza menderatu ahalko dute?
- Metodologia honen bitartez ikasle sortzaileago, ikertzaileago eta partehartzaileagoak lortuko dira?
- Gaia garatzeko moduaren arabera ikasleen interesa pizten da?
- Ezarritako helburuak lortuko dira proiektuaren bidez?

- Proiektua ebaluatua izango da prozesu guztian zehar edo soilik bukaerako emaitzaren bitartez?
- Proiektua betetzeko aurreikusitako denbora bete da?
- Proiektu bidez eduki konkretuak ikasteaz gain beste gaitasunetan trebatzen dira?
- Zer gauz desberdin ikasten dituzte ikasleek PBIren bidez?

c. PROIEKTUA

Esan bezala, marko teorikoa ikusita, jarraian GBL honetan GBL praktiko bat proposatuko dut, beraz, proiektu txiki bat egitea proposatzen dut. Horretarako, testuingurua, kompetentziak, oinarritzko jakintzak, metodologia, ikaskuntza egoerak eta ebaluazioa azalduko ditut.

i. Testuingurua

Nik proiektua aurrera eraman dudana ikastetxea San Miguel Ikastetxe Publikoa da, Doneztebe, Nafarroan, kokaturik dagoena. Bertan, 3-12 urte bitarteako umeak joaten dira, bailarako (Malerreka) herri guztietatik.

Zonaldeko egoera soziologikoari dagokionez, euskara nagusitzen den bailara denez, familia gehienetan beraien ama hizkuntza da. Gainera, euskal kultura nabaria da izaera, ohituretan, ekintzetan, etab. Familia gehiengoak erdi mailakoak dira eta zonaldeko zerbitzuetan lan egiten dute baita nekazaritza eta abeltzaintzan.

Esan beharra dago, zonalde honetan immigrazioa badela, ez da oso ugaria, baina etortzen diren etorkinak nahiko integratuak egoten dira, gehienak D ereduari sartzen baitira.

Nire proiektu hau praktikaldian egondako taldearekin aurrera eraman dut, Lehen Hezkuntzako 1. mailan hain zuzen ere.

Taldeari dagokionez, 24 ikasle osaturik dago, 7 neska eta 17 mutil. 6-7 inguruko ikasleak dira. Aniztasun handia dago gela honetan, izan ere, esan bezala, malerreka bailarako herri guztietatik datoz ikasleak. Aipatzekoa ikasleak 4ko taldeetan kokaturik daudela. Alegia, guztira 6 talde txiki daude, gehienez ere 4koak eta gutxienez 3koak. Hasiera batean, kurtso hasieran, 5 talde txiki zeuden, batzuk 5 ikaslekoak eta beste batzuk 4 ikaslekoak. Baina, denborarekin ikusi ahal izan da talde bakoitzerako 5 ikasle gehiegi zela eta horregatik aldatu egin da txokoak antolatzeko modua.

Horrekin batera, kultura aniztasuna duen taldea ere bada, hots, 3 ikasle Errumaniakoak dira, ikasle bat Hondurasekoa eta beste bat Hego Amerikakoa. Errumaniako ikasleei dagokionez, horietako bat aurten etorri da kurtso hasieran eta beste biak jada hirugarren urtea dute hemen. Honduraseko ikaslea aldiz, ikasturteko bigarren hiruhilekoan iritsi da.

Honez gain, zailtasun akademikoak dituzten ikasle batzuk daude ere.

Ikasleek maila honetan zenbait irakasgai desberdin dituzte, hala nola, ingelesa, hizkuntza, gaztelania, musika, gorputz hezkuntza, plastika, matematika, ingurunea eta H.A. edo erlijioa.

ii. Konpetentziak

Konpetentziei dagokionez, funtsezkoak eta espezifikoak daude. Funtsezko konpetentziak ezinbestekotzat jotzen diren jardunak dira, ikasleek beren prestakuntza ibilbidean arrakasta bermatuta aurrera egin ahal izateko eta erronka globalei eta tokikoei aurre egiteko bete beharrekoak.

Konpetentzia espezifikoak aldiz, ikasleek ze bait jarduera edo egoratan betetzeko gai izan behar duten jardunak, jarduera edo egoera horiei heltzeko beharrezkoak direnean arlo edo esparru bakoitzaren oinarritzko jakintzak dira.

Jarraian, funtsezko konpetentzien eta konpetentzia espezifikoen zerrenda azaltzen da:

- Funtsezko konpetentziak
 - Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia
 - Eleaniztasunerako konpetentzia
 - Matematikarako konpetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia
 - Konpetentzia digitala
 - Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
 - Herritar konpetentzia
 - Ekimenerako konpetentzia
 - Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia
- Konpetentzia espezifikoak

Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezagutza

1. Gaitasun berariazkoa

Gailu eta baliabide digitalak modu seguruan, arduratsuan eta efizientean erabiltzea, informazioa bilatzeko, komunikatzeko eta bakarka, taldean eta sarean lan egiteko, eta hezkuntza-testuinguruaren premia digitalen arabera eduki digitala berregin eta sortzeko.

2. Gaitasun berariazkoa

Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoari dagozkion teknikak, tresnak eta ereduak erabiliz, ingurune natural, sozial eta kulturalen gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.

3. Gaitasun berariazkoa

Arazoak konpontzea diseinu-proiektuak eta pentsamendu konputazionala aplikatuz, behar zehatzei erantzunen dien sormenezko produktu berritzaile bat lankidetzan sortzeko.

4. Gaitasun berariazkoa

Norberaren gorputza ezagutzea eta haren kontzientzia hartzea, baita norberaren eta besteen emozio eta sentimenduen ere, eta ezagutza zientifikoa aplikatzea, ohitura osasungarriak garatzeko eta ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.

5. Gaitasun berariazkoa

Ingurune natural, sozial eta kulturalen elementuen edo sistemen ezaugarriak identifikatzea, haien antolaketa eta propietateak aztertzea eta haien artean erlazioak ezartzea, ondare natural eta kulturalaren balioa ezagutzeko eta hura kontserbatu, hobetu eta erantzukizunez erabiltzeko ekintzak gauzatzeko.

6. Gaitasun berariazkoa

Gizakiak ingurunean esku hartzearen kausak eta ondorioak identifikatzea, ikuspegi sozialetik, ekonomikotik, kulturaletik, teknologikotik eta ingurumenekotik, batetik, arazoei aurre egiteko, irtenbideak bilatzeko eta, horiek konpontzeko, bakarka nahiz lankidetzan aritzeko gaitasuna hobetzeko, eta, bestetik, bizimodu jasagarriak praktikan jartzeko, pertsonak eta planeta errespetatu, zaindu eta babestearekin bat datozenak.

7. Gaitasun berariazkoa

Ingurune sozial eta kulturalen irauten duena eta aldatzen dena behatzea, ulertzea eta interpretatzea, eta kausalitate-, aldiberekotasun- eta segida-erlazioak aztertzea, elementuen eta gertaeren arteko erlazioak azaltzeko eta baloratzeko.

8. Gaitasun berariazkoa

Genero-aniztasuna eta -berdintasuna ezagutzea eta baloratzea, enpatia eta beste kultura batzuekiko errespetua agertzea eta gai etikoei buruz hausnartzea, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibiduala eta kolektiboaren alde eta Europaren batasun balioak lortzen laguntzeko.

9. Gaitasun berariazkoa

Ingurunean eta gizarte bizitzan eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, balio demokratikoak, giza eskubideak eta haurren eskubideak, Espainiako Konstituzioaren eta Europar Batasunaren printzipioak eta balioak errespetatuz, bai eta Estatuak eta haren erakundeek bakeari eta herritarren segurtasun integralari eusteko betetzen duten eginkizuna baloratzea ere, errespetuzko eta ekitatezko interakzioak sortzeko eta gatazkak bake eta elkarrizketaren bidez konpontzea sustatzeko.

Arte Hezkuntza

1. Gaitasun berariazkoa

Hartze aktiboaren bidez, hainbat genero, estilo, garai eta kulturatako proposamen artistikoak ezagutzea, jakin-mina eta aniztasunarekiko errespetua garatzeko.

2. Gaitasun berariazkoa

Ikertzea adierazpen kultural eta artistikoei eta haien testuinguruei buruz, eta, horretarako, hainbat kanal, bitarteko eta teknika erabiltzea, haietaz gozatzeko, haien balioa ulertzeko eta norberaren sentsibilitate artistikoa garatzen hasteko.

3. Gaitasun berariazkoa

Ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adieraztea eta komunikatzea, eta soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digitalen aukerekin esperimentatzea nork bere obrak sortzeko.

4. Gaitasun berariazkoa

Bakarkako nahiz taldeko ekoizpen kulturalak eta artistikoak diseinatzen, prestatzen eta zabaltzen laguntzea, eta, hori egitean, prozesuaren balioa nabarmentzea eta zenbait eginkizun beren gain hartzea azken emaitza lortzeko, garatzeko bai sormena bai egiletzaren kontzeptua, baita taldeko kide izatearen sentipena ere.

Euskara eta literatura D eredia

1. Gaitasun berariazkoa

Munduko hizkuntza aniztasuna ezagutzea, abiapuntu hartuta ikasleek hitz egiten dituzten hizkuntzen eta Espainiako errealitate eleaniztun eta kulturaztatuen aitortza, hizkuntzen arteko hausnarketa bultzatzeko, hizkuntzaren gaineko estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu eta baztertzeko, eta aniztasun hori kultura-aberastasunaren iturri gisa baloratzeko.

2. Gaitasun berariazkoa

Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea; zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatzea, eta, lagunduta, alderdi formalak eta oinarritzko edukiak baloratzea, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio beharrei erantzuteke.

3. Gaitasun berariazkoa

Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteke; ezagutza eraikitzeke; lotura pertsonalak ezartzeko; eta askotariko ahozko interakzioetan autonomiaz eta elkarlanerako jarreraz eta jarrera enpatikoaz parte hartzeke.

4. Gaitasun berariazkoa

Testu idatziak eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea; zentzu orokorra, ideia nagusiak eta informazio esplizitua eta inplizitua atzematea eta, lagunduta, alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarritzko hausnarketak egitea, ezagutza eskuratu eta eraikitzeke eta askotariko komunikazio beharrei eta interesei erantzuteke.

5. Gaitasun berariazkoa

Testu idatzi eta multimodalak sortzea, oinarritzko zuzentasun gramatikala eta ortografikoa dutenak, edukiak behar bezala sekuentziaz, eta planifikatzeko, testualizatzeko, berrikusteko eta editatzeko oinarritzko estrategiak aplikatuta, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio eskaera zehatzei erantzuteke.

6. Gaitasun berariazkoa

Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren informazioa modu planifikatuan eta behar bezalako laguntzarekin bilatzea, hautatzea eta kontrastatzea, haren fidagarritasuna ebaluatzea eta manipulazio eta desinformaziorako arrisku batzuk antzematea, ezagutza bihurtzeko eta modu sortzailean komunikatzeko, ikuspegi pertsonala eta jabetza intelektualarekiko errespetuzkoa hartuta.

7. Gaitasun berariazkoa

Modu autonomoan irakurtzea beren gustuen eta interesen arabera hautatutako hainbat lan, eta irakurketa esperientziak partekatzea, irakurle nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna sustatzeko plazeraren iturri gisa eta horren dimentsio sozialaz gozatzeko.

8. Gaitasun berariazkoa

Ikasleen garapen-mailarako egokiak diren literatura lanak edo pasarteak irakaslearen laguntzaz irakurri, interpretatu eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura generoa eta haren funtsezko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa

hartzen hasteko, bai eta plazer, ezagutza eta literatura asmoko testuak sortzeko inspirazio iturri gisa ere.

9. Gaitasun berariazkoa

Hizkuntzari buruz hausnartzea, gidatuta, testuinguru esanguratsuetan testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta, oinarrizko terminologia egokia erabiliz hizkuntza kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko ulermena eta sorkuntza abileziak hobetzeko.

10. Gaitasun berariazkoa

Norberaren komunikazio praktikak elkarbizitza demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidezko botere abusua hautemanaz eta arbuiauz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa ere errazteko.

iii. Oinarrizko jakintzak

Oinarrizko jakintzak arlo edo esparru bati dagozkion edukiak osatzen dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak dira. Konpetentzia espezifikoa bereganatzeko ikasi beharrekoak direnak.

Proiektu honetan, hainbat oinarrizko jakintza erabiltzen dira eta oinarrizko jakintza horiek hainbat ikasgai mota desberdinak sustatzen dituzte.

Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezagutza ikasgaiatik, honako oinarrizko jakintza hauek erabiltzen dira:

- Ikerketaren beharretara egokitutako arakatzeko-prozedurak (denbora batez behatzea, identifikatzea eta sailkatzea, patroiak bilatzea...).
- Behaketak eta neurketak egiteko tresna eta gailu egokiak, ikerketa bakoitzaren beharren arabera.
- Ikerketekin lotutako oinarrizko hiztegi zientifikoa.
- Jakin-mina eta ekimena ikerketak egitean.
- Giza gorputzaren ezaugarri behagarriak eta oinarrizko funtzionamendua, autozaintzari dagokionez.
- Izaki bizidunak, gizakia barne, sailkatu eta identifikatzea, haien ezaugarri behagarrien arabera.
- Gizakiaren ongizate fisikoarekin lotutako ohitura osasungarriak: higieena, askotariko elikadura orekatu eta jasangarria, ariketa fisikoa, naturarekiko kontaktua, atsedena eta gorputzaren zaintza, gaixotasunak prebenitzeko bitarteko gisa.
- Diseinu-proiektu bat burutzeko material egokiak.
- Talde-lanerako oinarrizko estrategiak, bikote-lanetik abiatuta.

Arte hezkuntza ikasgaiatik honako oinarrizko jakintza hauek aplikatzen dira:

- Hartze aktiboko oinarrizko estrategiak: entzute aktiboa, behatzea eta ikustea.

- Sortzeko prozesuaren faseak: planifikatzea, gidaturik; interpretatzen hastea; esperimentatzea eta hobetzea.

Euskara eta literatura (D eredu) ikasgaiatik honako oinarritzko jakintza hauek aplikatzen dira:

- Testu tipologiak: narrazioa, deskribapena eta elkarrizketa.
- Testu propietateak: koherentziarako eta kohesiorako oinarritzko estrategiak.
- Ahozko interakzioa: ahozko interakzio egokia testuinguru informaletan, entzute aktiboa, asertibitatea, elkarrizketaren bidez gatazkak konpontzea eta hizkuntza kortesia. Norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adieraztea eta entzutea.
- Irakurriaren ulermena: irakurriaren ulermeneko oinarritzko estrategiak, irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren. Ideiarik adierazgarrienak identifikatzea eta zentzu globala interpretatzea. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak identifikatzea. Irakurketa partekatua. Hitzezko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile nabarmenak detektatzea.

iv. Metodologia

Metodologia, irakasleek, kontzienteki eta gogoeta baten ondorioz, antolatu eta planifikatzen dituzten estrategia, prozedura, teknika eta ekintzen multzoa da. Elkarren artean koordinaturik, helburu du ikasleen ikaskuntza bideratzea helburuak eta funtsezko kompetentzia nahiz kompetentzia espezifikoak lortzea.

Proiektu honetan erabili den metodologiari dagokionez, esan bezala, metodologia aktiboan oinarrituko da, hau da, beti bilatuko da ikasle guztien parte-hartze aktiboa. Ikasle guztiek modu batez edo bestez parte-hartuko dutela bermatzea izango da metodologia honen funtsa.

Proiektuaren oinarria, izenak esaten duen bezala, Proiektu Bidezko Ikaskuntza metodologian oinarrituko da. Bertan, metodologia kooperatiboa erabiliz, izan ere, iaksleek taldeka lan egingo dutelako. Horrela, ikasleek kooperazioan haritzen eta txandak errespetatzen, gainontzekoen iritzia kontuan hartzen eta haien ideiak adierazten ikasiko dute.

Honez gain, PBIa erabiltzen delarik, beste hainbat metodologia aktiboen presentzia nabaria izango da. Hala nola, bikoteka lana, talde kooperatiboak, disziplina positiboa, etab. Proiektuak sekuentziazio logiko bat izango du, hau da, ikasleen aurrezagutzetatik hasiko da, ondoren, landu beharreko gai edota edukiak emango dira eta amaierako produktu/helburuarekin itxiko da. Hau da, saioen sekuentziazioak hasierako fase bat, garapen fase bat eta bukaerako fase bat izango dute.

Erabilitako metodologia moten harira, Montessori metodologia ere erabiliko da, izan ere, haurra bera izango da bere ikaskuntza bideratuko duena eta irakaslea behatzailea moduan egongo dena. Gainera, metodologia honek dioen bezala, ikaskuntza ingurunea egokituko da haurren garapen mailara, bere ikaskuntza eta garapen egokiak bermatzeko.

Horretaz gain, IKKI metodologia erabiliko da zenbait kasutan ere. Aurretik aipatu bezala, proiektuan oso garantzitsua izango da kooperazioa, modu horretan, izenak dioen bezala, ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasiko dute ikasleek. Metodologia hau arkatzak erdira bezalako dinamiketan eta talde lanetan islatuko da. Gainera, bukaerako produktua gauzatu ahal izateko, kooperazioa ezinbestekoa izango da, beraz, funtsetako bat kooperaziorako giroa sortea izango da.

Proiektua garatzen doain heinean suertatzen diren arazo eta oztopoei aurre egiteko hainbat estrategia erabiliko dira. Gatazken kudeaketari dagokionez, ikasleei denbora emango zaie lasaitzeko eta ondoren haiek saiaturako dira gatazka konpontzen hain sentimenduak eta min egin diena adieraziz. Alegia, kudeaketa emozionalari garrantzia emango zaio. Momentu oro irakaslea (ni) moderatzaile edota laguntzaile moduan jokatzeko duen bitartean.

Honekin guztiarekin batera, saio malgutasuna izango da. Alderdiren bati saio gehiago eskaintzea beharrezkoa bada, edo gatazka konpontzeko saioen bat erabili behar bada, inongo arazorik gabe erabiliko da. Beraz, moldaketak egingo dira klaseko egunerokotasunera eta ikasleen beharretara egokitzeko. Gainera, erabiliko den gelaren kudeaketari dagokionez, atzeko aldean jolasteko txoko desberdinak (hizkuntza txokoa, matematika txokoa, puzzle txokoa eta eraikin txokoa) daude, ikasleek jarduerak bat amaitzerakoan, lana ongi burutzerakoan edota egoeraren arabera joan ahal izateko.

Azkenik, esan beharra dago, nahiz eta erronka izan, ikasle bakoitzari ikaskuntza pertsonalizatua emango zaiola, hau da, ikasle bakoitzaren beharretara egokituko da proiektua. Horren harira, aniztasunaren trataera egokia egingo da, norbaitek behar bereziak baldin baditu saio bakoitzean eta ebaluazio prozesuan beharrezkoak diren egokitzapen eta moldaketak egingo dira, ikaskuntza prozesua aberasgarria izan dadin.


Beraz, laburbilduz, PBI izango da oinarritzko metodologia eta proiektua bideratuko duen ardatza, baina horren barruan beste hainbat metodologia aktiboen presentzia izanen da. Modu honetan, kooperazioan eta talde-lanean oinarritzen den etaa ikasle guztien parte-hartzea bilatzen duen proiektua sortuz. Horrekin batera, inklusioa, errespetua, berdintasuna... bezalako balio demokratikoak sustatuko dira, klaseko giroa ona izatea zein gizartean bizitzeko prestakuntza bermatuz.

v. Ikaskuntza egoerak

Ikaskuntza egoerak ikasleek funtsezko eta kompetentzia espezifikoei lotutako jarduerak gauzatea dakarten egoerak eta jarduerak, kompetentzia horiek eskuratu eta garatzen laguntzen dutenak dira.

Proiektu honek 21 saio ditu. Horrela, hurrengo tauletan saio bakoitzean pausoz-pauso landu dena eta egin diren jarduerak aipatu eta azalduko dira. Gainera, horrekin bat datozen helburuak eta beharrezko materialak aipatuko dira. Esan beharra dago, ikasleek ingurunean lau saio dituztela astean, bat astearteetan patio eta gero, beste bat asteazkenetan patio baino lehen eta bi jarraian ostegunetan patio eta gero. Horregatik, kontuan hartu dira saioak noiz egin diren, ez baita berdina ikasleekin zerbait lantzea goizeko lehen orduan edo jolastordutik etortzerakoan. Hala ere, lehenagotik aipatu den bezala, saio

malgutasuna izango da eta momentu batzuetan egokiago izan bada proiektua lantzea ingurunea ez den beste ikasgai batean horrela egin da.

1. Atala: Harrera saioak	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-09	Iraupena: 1h 30min (bi saio)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none">- Eguberrietatik bueltan gaudenez, ikasleak berriz ere klasearen dinamika hartzea izango da helburua- Idazketa prozesua berriz ere martxan jartzea- Irakurketa prozesua berriz ere martxan jartzea- Adaptazioa		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none">- Koloretako kartulina- Papera- Arkatza- Borragoma- Itsasteko goma- Arbela- Arbelan idazteko margoa		Ikastetxeko ikasgela
1. Jarduera: Ahozko harrera		
<p>Deskribapena: Nabaria da ikasleak urduri daudela oportetatik bueltan baina errutina hartzen saiatu behar da eta horretarako lehen gauza eguberrietako etxerako lanak eta irakurri beharreko liburua eskatu zaie.</p> <p>Eguberrietatik bueltan etorri garenez, ikasleei galdetu egin zaie zer moduz joan diren oporrak. Horretarako, ikasleek eskua altxatu dute eta bakoitzak oportetan egindakoa ahoz kontatu du gelaren aurrean.</p> <p>Ondoren, eguneroko errutinarekin jarraitzeko, arduradunak data jarri du dataren koadroan eta arbelean idatzi du.</p>		
2. Jarduera: Idatzizko harrera		

Deskribapena: Ondoren, ikasle bakoitzak paper batean idatzi du eguberrietan egindako gauza bat eta jasotako opariak.



3. Jarduera: Opari klasifikazioa

Deskribapena: Jarraian, ikasle bakoitzari bi kartulinazko txartel eman zaizkie, neskei hori koloreko bat eta mutilei urdin koloreko beste bat.


Txartel bakoitzean opari bana idatzi dute. Ondoren, arbelean hiru zutabe idatzi ditugu: “NESKENAK”, “MUTILENAK”, “BIENAK”.

Ikasle bakoitzak hartu ditu bere txartelak eta klasifikatu ditu bertan idatzitako opariak arbeleko zutabeen azpian. Alegia, ikasle bakoitzak ipini ditu bere txarteletako opariak “NESKENAK”, “MUTILENAK” edo “BIENAK” arbelekio zutabeen azpian haien usteen arabera.

Ikusi ahal izan dugu ikasleek genero banaketaren inguruan zer nolako pentsamenduak dituzten eta gaur egun oraindik ere “nesken” eta “mutilen” jolasak nola klasifikatzen diren.

Neskei hori koloreko txartelak eman dizkiegu eta mutilei urdinak, ondoren jakiteko neskek zer nolako irudikapena duten genero rolen inguruan eta mutilek zer nolako pentsamendua duten.

Txartelak arbelan itseki behar zirenez, oso bisuala izan da ikasleentzat ikustea opariak zein zutabeetan klasifikatzen zituzten.



<p>Oso interesgarria izan da jarduera hau, alde batetik ikusi ahal izan dugulako ikasle bakoitzak gutxi gora behera zer nolako pentsamendua duen eta sorturiko eztabaidengatik.</p> <p>Ikasle gehiengoak “BIENAK” zutabearen azpian klasifikatu dituzte haien opariak bi mutil ezik arropa “NESKENAK” eta lego “MUTILENAK” zutabeetan klasifikatu dutelarik.</p>	
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--

2. Atala: Aurrezagutzak	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-10	Iraupena: 45min (saio bat)	

Saioaren helburuak:

- Ikasleek gorputzaren inguruan duten aurrezagutzak jakitea
- Landu beharreko edukiak zeintzuk diren identifikatzea
- Ikasleen kooperazioa sustatzea
- Ikasleen ahozkotasuna lantzea

Erabilitako materiala:

Ez da material fisikorik erabili jarduera guztia ahoz egin baita

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko ikasgela

1. Jarduera: Galderak ahoz

Deskribapena: Ikasleei hainbat galdera egin zaizkie ahoz gorputzaren inguruan haiek dakiten informazioa atera ahal izateko.

Galdera horiek honako hauek izan dira:

- Zer dakizue gorputzari buruz?
- Zeintzuk dira gorputz atalak?
- Nola zaintzen da gorputza?

Ikasleek eskua altxa eta galderak erantzuten joan dira, ikasle baten erantzunetik beste erantzun bat sortzen zen eta oso dinamikoa izan da.

Gainera, hasierako galdera horietatik abiatuta, ikasleei beste galdera mota batzuk sortu zaizkie, guretzat baliogarriak jakiteko zer motatako edukiak landu.


Galdera horiek honako hauek izanik:



- Gominolak osasuntsuak dira?
- Ilea gorputz atal bat da?
- Neskak eta mutilak berdina dira?

Beraz, guk planteaturiko galderetatik abiatuta eta ondoren saioan zehar sortzen joan diren galdera eta egoeretatik abiatuta, beste alderdi batzuk landu dira. Hala nola, ikasle bakoitzak zer gosaltzen duen, gosari horiek osasuntsuak ote diren, etab.

Oso ongi atera da jarduera eta parte hartu dute ikasleek. Interesa nabaria izan da.

3. Atala: Gorputza eta janaria	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-11	Iraupena: 20 min (saio erdia)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek lehengo egunean azalduriko aurrezagutzak idaztea - Talde dinamika garatzea - Kooperazioa sustatzea - Ikasleek dakitena isladatzea eta ondorioz, landu beharrekoa jakitea irakasleak 		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none"> - Papera - Arkatza - Borragoma 		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Errutinak		
Deskribapena: Eguneko lehen saioa denez errutinak egin ditugu. Beraz, arduradunak data eta eguraldia adierazi ditu arbelean.		

2. Jarduera: Fitxa birakaria

Deskribapena: Talde dinamika bat egin dugu. Talde txiki bakoitzak arkatza bat eta borragoma bat izan du. Fitxa handi bat eman zaie talde bakoitzari eta fitxa horretan ondorengo galderak azaltzen ziren:

- Nolakoa da gure gorputza barnetik?
- Zein dira gorputzaren atal nagusiak?
- Nola jan behar dugu osasuntsu egoteko?
- Nola zaindu behar dugu gorputza?


Beraz, esan bezala, talde dinamika bat egin dugu. Fitxa birakari bat sortu dugu, ikasle bakoitzak galdera horietako bat idatzi behar zuen paperean baina erantzuna guztion artean adostu behar zuten.

Galderetako bat guztion artean erantzuna adosterakoan, ikasle batek erantzuna idatzi du. Ondoren, fitxa, arkatza eta borragoma ondoko ikasleari pasa eta dinamika berdina egin dute hurrengo galderarekin.

Oso ongi atera da jarduera, talde erabakiak hartu dituzte ikasleek eta adostasunetara iritsi dira. Gainera, talde kooperazioa egin dute eta interesa erakutsi dute.

Gaur ezin izan dugu amaitu jarduera beraz, beste egun batean jarraituko dugu.

GORPUTZA



4. Atala: Gorputza eta janaria

Maila: 1

Taldea: A

Data: 2023-01-12

Iraupena: 1h 10min (saio bat eta erdi)

Saioaren helburuak:

- Ikasleek lehengo egunean azalduriko aurrezagutzak idaztea
- Talde dinamika garatzea
- Kooperazioa sustatzea
- Ikasleek dakitena isladatzea eta ondorioz, landu beharrekoa jakitea irakasleak
- Lehengo egunean hasitako taldekako dinamika amaitzea

Erabilitako materiala:

- Papera
- Arkatza
- Borragoma

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela


- Koloretako margoak
- Itsasteko goma

1. Jarduera: Fitxa birakaria

Deskribapena: Lehengo egunean hasitako talde dinamikarekin jarraitu dugu.

Oraingoan taldeek amaitu dute jada fitxa. Amaitzerakoan utzi diegu fitxan azaltzen ziren pertsonen koloreztatzen.

Talde gehienek oso ongi burutu dute jarduera. Oso kooperatiboak izan dira eta gustatu zaie. Beste talde batzuk ez dira kooperatiboak izan eta nahiko indibidualistak izan dira erantzunak idazterako orduan.




2. Jarduera: Giza silueta

Deskribapena: Beste egun batean egingo dugun jardueraren harira, bi ikasle hartu ditugu, neska eta mutila, eta paper handi batean, lurrean, haien silueta margotu dugu errotulagailu batekin.

Ondoren, esan bezala, aurrerago beharko dugun jarduera baterako sortu ditugu bi giza silueta.

Eguneko azken saioa denez ikasleak jada nekatuak daude eta haien atentzio maila oso txikia da. Beraz, ez dugu silueten jarduerarekin jarraitu. Soilik siluetak paperean marraztu ditugu eta gela atzeko paretan itsatsi ditugu.

Ondoren, jolasteko denbora utzi diegu.



5. Atala: Gorputz atalak

Maila: 1

Taldea: A

Data: 2023-01-17

Iraupena: 1h 10 min (saio bat eta erdi)

Saioaren helburuak:

- Ikasleek lehengo egunean azalduko aurrezagutzak idaztea
- Talde dinamika garatzea

- Kooperazioa sustatzea
- Ikasleek dakitena isladatzea eta ondorioz, landu beharrekoa jakitea irakasleak
- Lehengo egunean hasitako taldekako dinamika amaitzea

Erabilitako materiala:


- Errotulagailua
- Koaderno
- Arkatza
- Borragoma

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera: Ahozko errepasoa

Deskribapena: Lehenik eta behin, ahoz guztion artean errepasatu dugu zeintzuk diren gorputz atalak (kopeta, ahoa, lepoa, bularra, etab.). Ikasleek eskua altxatzen zuten eta txandaka joan dira atalak esaten.




2. Jarduera: Giza silueta

Deskribapena: Ondoren, gorputz atalak errepasaturik, lehengo egunean sorturiko paperezko silueteekin jarraitu dugu.

Bertan, neskaren silueta erabili dugu kanpoko gorputz atalak adierazteko eta mutikoaren silueta barruko gorputz atalak adierazteko.

Irakasleak, errotulagailu batekin, joan da idazten silueteetan ikasleek esaten zituzten gorputz atalak.

Lehenik, atal orokorrenak atera dira (burua, gorputz adarrak eta enborra). Ondoren, atal espezifikoagoak ipintzen joan dira (begiak, ahoa, alua, zakila, etab.).



Azkenik, bi siluetak bete arte.

Oso ongi atera da jarduera eta gelan bi silueta handiak izatea oso bisuala izango da ikasleentzat edozein momentutan gorputz atal horiek ikusi ahal izateko eta edukiak hobe barneratu ahal izateko.

Gainera, oso partehartzaileak izan dira ikasleak eta gorputz atal berriak ateratzen joan dira.

3. Jarduera: Koadernoak

Deskribapena: Behin bi siluetak izanda, ikasle bakoitzak haren koaderno hartu du eta data, izenburua eta gorputzaren hiru atal nagusiak (burua, gorputz adarrak eta enborrak).

Jarraian, ikasle bakoitzak kopiatu du gorputz atal orokor horietako bakoitzeko zein gorputz atal zerrenda (begiak, lepoa, besoak, hankak, etab.) dagokion, landuriko edukiak hobe barneratzeko.



6. Atala: Edukiak indartzen

Maila: 1

Taldea: A

Data: 2023-01-19

Iraupena: 45 min (saio bat)

Saioaren helburuak:

- Orain arte landuriko edukiak hobe barneratzea
- Ikasleek ikasitako jakitea
- Ahozkotasuna lantzea
- Entzunezko ulermena lantzea
- Irakurmena lantzea
- Idazketa lantzea

Erabilitako materiala:

- Ordenagailua
- Papera
- Arkatza
- Borragoma
- Koloreak

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera: Kanta

Deskribapena: Ordenagailuan, gorputzaren inguruko kanta bat ("Gorputzaren soinua, musika, Kantu txikiak.") jarri diegu ikasleei.

Bertan, gorputz atalen inguruko izenak azaltzen baitira eta ongi etorri zaie errepasatzeko lantzen ari garen edukiak.

Asko gustatu zaie kanta. Beti ere, musikarekin zerikusia duten jarduerak oso erakargarriak dire ikasleentzat eta oso ongi pasatzen dute.



2. Jarduera: Ahozko errepasoa

Deskribapena: Ondoren, ahoz errepasatu ditugu, talde osoan, zeintzuk diren gorputz atalak sakonki.

Ongi joan da jarduera. Ikasle gehiengoa oroitzen zen landuriko gorputz ataletaz eta oso partehartzaileak izan dira.

Nabaria da gaiak interesa pizten duela ikasleengan.




3. Jarduera: Gurutzegrama

Deskribapena: Jarraian, behin izen guztiak errepasaturik, gurutzegrama bat egin dugu.

Ikasle bakoitzari fitxa batean eman zaio gurutzegrama osatu ahal izateko.

Ikasle batzuek inongo zailtasunik gabe burutu dute gurutzegrama. Beste batzuentzat aldiz zaila izan da, ez baitute oraindik asko landu formato honetako jarduerak.



4. Jarduera: Marrazkia osatu


Deskribapena: Gurutzegrama amaitzerakoan, ikasleei beste orrialde bat eman zaie.

Bertan, pertsona bat zegoen eta gorputzeko atal desberdinetan hutsuneak zeuden.

Ondoan, hutsune horiek betetzeko izenak azaltzen ziren koadro batean. Ikasleek izen horiek irakurri eta dagokion hutsunean idatzi behar izan dute.

Ikasle gehiengoak ongi burutu du jarduera, baina ikasle batzuei kostatu egin zaie oraindik ere idazketa-irakurketa prozesuan atzeratuagoak daudelako. Beraz, irakaslearen laguntza zuzena behar izan dute.

Jarduera amaitzerakoan, ikasleak txokotara jolastera joan dire denbora libre pixka bat izanik.



7. Atala: Bingoa	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-24	Iraupena: 20 min (saio erdia)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> - Orain arte ikasitako gorputz atalak lantzen jarraitzea - Bingoaren dinamika nolakoa den ikastea - Jolas mota ezberdinak ezagutzea - Ikasleen autonomia sustatzea 		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none"> - Papera - Ordenagailua - Arkatza - Borragoma 		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Bingoa		

Deskribapena: Ikastetxeko PT irakaslea etorri da klasera. Asteazken zenbait alditan etorri egiten da prebentzio saio moduko bat egiteko.

Prestaturiko gorputzaren inguruko bingoa egin dugu. Ordenagailuan, gorputz atal desberdinak azaltzen joan dira, eta ikasleek, haien bingo kartoien arabera, gorputz atalak kenduz joan behar ziren.

Gaur oso egun txarra dute ikasleek. Oso aztoraturik daude eta ez dira egin beharreko lanak burutzen ari.

Bingo osorik amaitzea lortu dugu baina ikasle gehiengoak ez du behar bezala parte hartu eta ez da oso eraginkorra izan.

Azken saioa izan da eta ordurako nekaturak egoten dira baina ez da espero bezala atera jardura.

Ongi etorri zaie gorputz atalak erreparatu ahal izateko baina esan bezala, hobe ateratzen ahal zen.



8. Atala: Panpina	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-25	Iraupena: 45 min (saio 1)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none">- Ikasleen esku motrizitatea lantzea- Ikasleen autonomia sustatzea- Gorputz atalak lantzen jarraitzea- Eskulanak egiten ikastea- Ikasle bakoitzak haren materiala errespetatu eta ongi zaintzea		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none">- Papera- Guraizeak- Itsaskina		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Gorputza eraiki		

Deskribapena: Ikasle bakoitzari paper bat eman zaio. Paper horretan, hainbat gorputz atal eta jantzi azaltzen dira.

Hala nola, besoak, hankak, begiak, sudurra, prakak, kamixeta, etab.

Honez gain, ikasle bakoitzari beste paper bat eman zaio pertsona baten siluetarekin.

Beraz, ikasle bakoitzak guraizeen laguntzarekin, atal eta jantzi bakoitza moztu eta siluetan itsasten joan dira, amaierako panpin bat sortuz.

Gustokoa dute gisa honetako jarduerak, ikasle bakoitzak haren erritmoa eramaten duelako eta eskulanak egitea orokorrean gustokoa dutelako.

Ikasle bakoitza haren panpinaren atalak mozten eta itsekitzen joan da, batzuk azkarrago besteak mantsoago, baina ez dugu denborarik izan amaitzeko.

Oso ongi egin dute lan eta nabaria izan da gustokoa izan dutela jarduera.

Jarduera ez denez amaitu, ikasle bakoitzak paperezko gutun-azal bat sortu dute haren izenarekin mozturiko atalak gordetzeko eta ez galtzeko.



9. Atala: Panpina amaitu

Maila: 1


Taldea: A

Data: 2023-01-27

Iraupena: 45 min (saio 1)

Saioaren helburuak:

- Ikasleen esku motrizitatea lantzea
- Ikasleen autonomia sustatzea
- Gorputz atalak lantzen jarraitzea
- Eskulanak egiten ikastea
- Ikasle bakoitzak haren materiala errespetatu eta ongi zaintzea
- Lehengo egunean hasitako panpina amaitzea

Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:	
<ul style="list-style-type: none"> - Papera - Guraizeak - Itsaskina 		Ikastetxeko gela	
1. Jarduera: Gorputza amaitu			
<p>Deskribapena: Lehengo egunean hasitako panpina amaitu dugu.</p> <p>Ikasle bakoitzak haren gutun-azala hartu du eta jarraitu du haren panpina sortzen.</p> <p>Guztiek amaitu dute eta etxera eraman ahal izan dute panpina.</p> <p>Asko gustatu zaie jarduera, oso partehartzaileak izan dira eta motibatuak egon dira momentu oro. Eskulanak egitearen garrantzia nabaria izan da.</p>			

10. Atala: Ikasleen jolasak	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-01-30	Iraupena: 20 min (saio erdia)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek etxetik ekarritakoa zertarako balio dun ikustea - Landutako eduki guztiak birgogoratzea - Ikasleek ikasitakoa ikustea - Irakurmena lantzea 		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none"> - Plastikozko panpin bat - Liburu bat - Puzzle bat 		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Etxeko materiala erabiltzen		

Deskribapena: Ikasleek, gaia interesezkoa egin zaienez, hainbat material ekarri dituzte eskolara gorputzaren inguruan.

Material horiek, plastikozko panpin bat, gorputzaren inguruko liburu bat eta gorputzaren inguruko puzzle bat izanik.

Beraz, ekarritako material hori orain arte ikasitakoa birpasatzeko erabili dugu.

Lehenik, ikasle batek ekarritako plastikozko panpin bat landu dugu. Panpin honek, gorputzeko atalak (barrukoak) agerian ditu eta bisualki oso ongi dago ikasleek ikus dezaten nolakoa den gorputza barrenetik.

Gorputz atal bakoitza zein den adierazten joan gara guztion artean ahoz.

Ondoren, beste ikasle batek ekarritako liburua landu dugu. Bertan, gorputz atal desberdinak azaltzen ziren eta guztion artean irakurri ditugu.

Azkenik, ikasle batek ekarritako puzzlea egin dugu denon artean. Puzzle honek, gorputzeko atal desberdinak eta haien izenak zituen.

Oso gustokoa izan dute saio hau, dinamikoa eta dibertigarria egin baitzaie. Partehartzaileak izan dira eta erakutsi dute gorputz atalak eta landuriko eduki guztiak menperatzen dituztela.



11. Atala: Gorputz atalekin amaitzen	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-02	Iraupena: 45 min (saio bat)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none">- Gorputz atalen gaiarekin amaitzea- Idazketa-irakurketa prozesuan nola dauden ikustea eta lantzea- Ikasleek ikasitakoa praktikan jartzea		
Erabilitako materiala:	Erabilitako espazioa:	

<ul style="list-style-type: none"> - Papera - Arkatza - Borragoma - Koloretako margoak - Altuera neurtzeko metroa - Pisua neurtzeko gailua 	Ikastetxeko gela
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------

1. Jarduera: Ni honelakoa naiz

Deskribapena: Ikasle bakoitzari fitxa bat eman zaio. Bertan, taula moduko bat azaltzen da zeinetan esaldi batzuk dauden hainbat hutsuneekin.

Esaldi horiek ondorengoak dira:

- Nire izena..... da
- Nire begiak..... dira
- Nire ilea..... da
- cm neurtzen dut
- kg pisatzen dut

Beraz, ikasle bakoitzak esaldietan dauden hutsuneak bete behar dituzte, idatziz, haien informazioarekin. Altuera eta pisua neurtzeko elementuak ekarri ditugu informazio hori lortu ahal izateko.

Ikasleek arazorik gabe bete dute taula eta amaitzerakoan bertan azaltzen ziren pertsona eta objektuak koloreztatzeko denbora utzi diegu.

Ikusi ahal izan dugu ikasleek gorputz atalen gaia ongi menperatzen dutela eta landutako edukiak ikasi dituztela. Beraz, jarduera honekin gorputz atalen zatia amaitutzat eman dugu.



12. Atala: Gorputz atalekin amaitzen	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-02	Iraupena: 45 min (saio bat)	

Saioaren helburuak:

- Gorputz atalen gaiarekin amaitzea
- Idazketa-irakurketa prozesuan nola dauden ikustea eta lantzea
- Ikasleek ikasitakoa praktikan jartzea

Erabilitako materiala:

Erabilitako espazioa:

<ul style="list-style-type: none"> - Papera - Arkatza - Borragoma - Koloretako margoak - Altuera neurtzeko metroa - Pisua neurtzeko gailua 	Ikastetxeko gela
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------

1. Jarduera: Ni honelakoa naiz

Deskribapena: Ikasle bakoitzari fitxa bat eman zaio. Bertan, taula moduko bat azaltzen da zeinetan esaldi batzuk dauden hainbat hutsuneekin.

Esaldi horiek ondorengoak dira:

- Nire izena..... da
- Nire begiak..... dira
- Nire ilea..... da
- cm neurtzen dut
- kg pisatzen dut

Beraz, ikasle bakoitzak esaldietan dauden hutsuneak bete behar dituzte, idatziz, haien informazioarekin. Altuera eta pisua neurtzeko elementuak ekarri ditugu informazio hori lortu ahal izateko.

Ikasleek arazorik gabe bete dute taula eta amaitzerakoan bertan azaltzen ziren pertsona eta objektuak koloreztatzeko denbora utzi diegu.

Ikusi ahal izan dugu ikasleek gorputz atalen gaia ongi menperatzen dutela eta landutako edukiak ikasi dituztela. Beraz, jarduera honekin gorputz atalen zatia amaitutzat eman dugu.



13. Atala: Zentzumenak	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-06	Iraupena: 45 min (saio 1)	

Saioaren helburuak:

- Zentzumenak zeintzuk diren ikastea
- Zentzumen bakoitzak zertarako balio duen identifikatzea
- Aurrezagutzetatik abiatzea

Erabilitako materiala:

Erabilitako espazioa:

- Arbela
- Arkatza
- Koaderno
- Borragoma

Ikastetxeko gela

1. Jarduera: Aurrezagutzetatik abiatu

Deskribapena: Ikasleekin ahoz zentzumenak zeintzuk diren landu ditugu. Lehenik, galdetu egin diegu ea zer dakiten zentzumenen inguruan.

Guztiek identifikatu dituzte zentzumenak beraz hortik jarraitu dugu.

Ondoren, zentzumen bakoitzarekin zer identifika dezakegun landu dugu ahoz guztion artean.

Positibioki arritu gaitu ikusteak ikasleek zenbateko jakintzak dituzten jada zentzumenen inguruan aurretik landu gabe beraz lana errazagoa izan da.



2. Jarduera: Jarduera interaktiboak

Deskribapena: Behin zentzumenak ahoz errepasaturik, arbelean bi joku interaktiboak egin ditugu zentzumenen inguruan.

Oso gustokoa izan dituzte jarduerak, motibatuak eta interesatuak ikusi zaie.



3. Jarduera: Koaderno

Deskribapena: Jarraian, ikasle bakoitzka haren koaderno hartu du, data eta izenburua jarri du eta guk emandako zentzumenen inguruko fitxa bat itsatsi eta bete dute. Bertan, erdian zentzumenak eta inguruan hainbat estimulu (txokolatea, telebista, musika, etab.) azaltzen ziren eta ikasle bakoitzak zein zentzumeni zegokion lotu behar zuten.

Ez dute azken jarduera hau amaitu,



<p>patio eta ondoren izandako saioa izan da eta nahiko aztoratuak etorri dira. Beraz, bertan utzi dugu jarduera beste egun batean jarraitu ahal izateko.</p>	
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--

14. Atala: Zentzumen jarduera amaitu	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-08	Iraupena: 20 min (saio erdia)	

Saioaren helburuak:

- Lehengo egunean hasitako jarduera amaitzea
- Ikasleen autonomia lantzea
- Ikasle bakoitza haren materiala eta koaderno txukun izatea

Erabilitako materiala:

- Koaderno
- Arkatza
- Borragoma

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera: Zentzumen jarduera amaitu

Deskribapena: Lehengo egunean koadernoan hasitako jarduerarekin amaitu dugu.

Oraingoan ikasleak lasaiago zeuden eta ongi amaitu dute jarduera.

Gainera, nabaria da gaiaren inguruan ikasleek dute ezagutzak indartsuak direla, oso erraz egiten baituzte jarduerak eta haien motibazioa nabaria da kontrolatzen duten gai bat delako.



15. Atala: Zentzumen ibilaldia	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-14	Iraupena: 1h 30 min (2 saio)	

Saioaren helburuak:

- Ikasleek zentzumenen inguruan zer ikasi duten jakitea
- Zentzumen ibilaldi bat egitea
- Zentzumen bakoitzarekin zer identifika daiteken ikastea

Erabilitako materiala:

- Mahaiak
- Kutxak

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko korridorea

- Koloretako paperak
- Makilak
- Plastilina
- Kartelak
- Janaria
- Koloniak
- Lupa
- Marrazkiak
- Objektu desberdinak
- Mugikorra

1. Jarduera: Zentzumen ibilaldia egin

Deskribapena: Zentzumenekin amaitzeko, ibilaldi bat sortu dugu irakasleak eta nik.

Ibilaldi horretan, zentzumen bakoitzeko, hainbat kutxa desberdin daude. Kutxa bakoitzak, zulo bat baino gehiago duelarik.


Zulo horietan eskua sartuz, sudurra hurbildu, bertakoa ahora eramanez, luparekin ikusiz edota belarria ipiniz, bertan zer dagoen asmatu behar izan dute ikasleek begiak itxita.


Lehenik, zentzumen ibilaldiko zentzumenak erreparatu ditugu guztion artean, eta ondoren, ikasle bakoitza altxa egin da eta eskua kutxa desberdinetan sartu du.


Ikasleek, esan bezala, kutxen barrukoa zer zen asmatu behar zuten.

Oso ongi atera da jarduera. Ikasleek oso ongi pasatu dute eta gelako espaziotik ateratzea, jolas moduko bat egitea, beraientzat ezezaguna den horrekin ibiltzea, etab. oso erakargarria bilakatu du ikasleentzat.

Jarduera honekin, ikusi ahal izan dugu ikasleek menperatu egiten dutela landutako edukiak beraz amaitutzat ematen dugu zentzumenen atala.



16. Atala: Errezeta	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-23	Iraupena: 45 min (saio bat)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> - Errezeta bat zer den jakitea - Errezeta baten ezaugarriak identifikatzea - Ulermena lantzea - Kooperazioa - Talde lana - Adostasunetara iristea 		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none"> - Arbela 		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Errezeta		
<p>Deskribapena: Proiektuaren azken fasean gaude jada eta ikasleei errezeta bat nolakoa den irakutsi diegu.</p> <p>Powerpoint interaktibo bat sortu dugu zeinetan errezeta baten ezaugarriak eta nondik norakoak azaltzen diren.</p> <p>Guztion artean, ahoz landu dugu powerpointa.</p> <p>Amaieran, frutazko brotxeta baten errezeta azaldu da. Bertan, errezeta modu desberdinetan azalduko dago: bisualki, bidio bidez, entzungai bidez, testu bidez, letra txikiz, letra handiz, etab. Ikasle bakoitzaren egoerara egokitu ahal izateko.</p> <p>Beraz, talde txiki bakoitzak adostu du hurrengo egunerako bakoitzak zer ekarri behar duen brotxeta egin ahal izateko.</p> <p>Gustokoa izan dute ikasleek jarduera eta interesa jarri dute powerpointean.</p> <p>Esan dezakegu, errezeta bat egiteko beharrezkoak diren edukiak landu ditugula.</p>		

17. Atala: Brotxetak sortu	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-02-27	Iraupena: 45 min (saio bat)	
Saioaren helburuak:		
<ul style="list-style-type: none"> - Brotxeta bat sortzea - Irakurketa prozesua lantzea - Ikasleen autonomia behatzea - Ikasleek erronka bat aurrera eraman ahal izateko duten estrategiak lantzea 		
Erabilitako materiala:		Erabilitako espazioa:
<ul style="list-style-type: none"> - Su txikia - Platerak - Fruta desberdinak - Txokolatea - Makilak - Labana - Mozteko egurra - Arbela 		Ikastetxeko gela
1. Jarduera: Brotxeta egin		
<p>Deskribapena: Lehengo eguneko fruitu brotxeta errezeta egin dugu. Horretarako, arbelean irudi bidez egin beharrekoa jarri diegu.</p> <p>Honez gain, ikasleen beharren arabera, talde batzuei errezeta testuz eta letra txikiz eman diegu eta beste batzuei testuz baina letra larriz.</p> <p>Beste talde batzuei aldiz, errezeta bideo bidez ikusteko aukera eman diegu.</p> <p>Azken finean, ikasle bakoitzaren egoera eta gaitasunei egokitu behar dira jarduerak.</p> <p>Jarraian, ikasle bakoitzak haren brotxeta sortu du eta ondoren jan egin du.</p> <p>Oso ongi atera da jarduera. Ikasleei asko gustatu zaie eta beraiek errezeta aurrera eraman ahal izatea eta janariarekin ibiltzea gustokoa izan dute. Guztiek brotxetak jan dituzte eta oso positiboki baloratzen dugu jarduera. Dibertigarria, motibatzailea eta erakargarria izan da.</p>		

--	--

18. Atala: Amaierako produktua	Maila: 1	Taldea: A
Data: 2023-03-01	Iraupena: 1h 30min (2 saio)	

Saioaren helburuak:

- Ikasitako guztia praktikan jartzea
- Idazketa prozesua garatzea
- Errezeta bat sortzea
- Ikasle bakoitzak haren jakintzak praktikan jartzea
- Kooperazioa sustatzea
- Talde lana sustatzea
- Kohesio dinamikak lantzea

Erabilitako materiala:

- Papera
- Arkatza
- Borragoma
- Koloretako margoak

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera: Errezeta sortu

Deskribapena: Orain arte ikasitako guztia praktikan jarri ahal izateko, eta amaierako produktu bezala, ikasleek errezeta bat sortu dute.

Errezeta hau taldeka sortu dute kohesio dinamika bat eginez. Kohesio dinamika hori "errezeta birakaria" izanik.

Ikasle talde bakoitzak nahi duen errezeta aukeratu du.

Ondoren, paper batean, ikasle batek errezetaren zati bat idatzi du. Jarraian, ondoko ikasleari papera eta arkatza eman eta ikasle honek hurrengo zatia idatzi du.

Modu honetan, guztion partehartzearen ondorioz, errezeta bat sortu dute guztion artean.

Amaitzerakoan, haien errezeta koloreekin apaintzen utzi diegu.



Positiboa izan da ateratako emaitza eta talde guztiek errezeta desberdinak modu desberdinetan sortu dituzte, beti ere ikasitakoa praktikan jarritz.

Beraz, jarduera honekin, amaitutzat ematen da gai osoa eta ondorioz, proiektua.

19. Atala: Ikasleen autoebaluazioa

Maila: 1

Taldea: A

Data: 2023-03-03

Iraupena: 20 min (saio erdia)

Saioaren helburuak:

- Ikasleek ikasitakoaren autoebaluazioa egitea
- Ikasleen motibazioa nolakoa izan den jakitea
- Ikasleen ikaskuntza esanguratsua izan den jakitea

Erabilitako materiala:

- Papera
- Arkatza
- Borragoma

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera:

Deskribapena: Ikasle bakoitzari, haren egoera eta gaitasunen arabera, autoebaluazio fitxa bat eskaini zaie.

Bertan, proiektuaren inguruko 6 galdera azaltzen dira eta ikasle bakoitzak galdera horiei erantzun behar die, modu honetan, proiektua ebaluatuz.

Autoebaluazio honetan, ikasleen motibazioa eta ikaskuntza neurtzen da eta irakaslearentzat proiektuaren inguruko feedback interesgarria da.



20. Atala: Proiektuaren inguruko azterketa

Maila: 1

Taldea: A

Data: 2023-03-06

Iraupena: 20 min (saio erdia)

Saioaren helburuak:

- Ikasleek ikasitakoa neurtzea
- Proiektuaren inguruko emaitzak lortzea

Erabilitako materiala:

- Ordenagailuak

Erabilitako espazioa:

Ikastetxeko gela

1. Jarduera:

Deskribapena: Ikasle bakoitzak kahoot bat egin du, azterketa gisa.

Bertan, 10 galdera daude eta galderak proiektu guztian zehar ikasitakoaren ingurukoak dira.

Azterketa honen bidez, ikasleek modu desberdin batean erantzuten dituzte galderak eta irakaslearentzat modu egoki bat da jakiteko ikasleek ikaskuntza nolakoa izan den eta datuak lortzeko.

**vi. Ebaluazioa**

Ebaluazioari dagokionez, proiektu guztian zehar jarraia izan da. Nahiz eta amaierako produktu bat egon, errezeta sortzea, proiektuan zehar egindako lan eta jarduera guztiak ebaluatuak izan dira.

Gainera, ikasleek hasieran eta amaieran izandako garapena kontuan hartu da ebaluazio gisa ikasleek ikasitakoa baloratu ahal izateko.

Burururiko jarduera bakoitza ebaluatua izan da modu batean edo bestean, baita ikasleen partehartzea ere. Ikasle bakoitzak gelan egindako lana eta jardueretan erakutsitako jakintzak kontuan hartu izan direlarik.

Aipatzekoa, atal bakoitzaren amaieran (gorputz atalak, zentzumenak eta errezeta) egindako jarduerak edota ikusitako ikasleen garapena, ebaluazio pisutsuena izan dela. Amaierako fase horietan ikusi ahal izan baita ikasleek atal bakoitzetik zer ikasi duten eta nola barneratu dituzten edukiak.

Esan bezala, ebaluazioa jarraia izan da proiektu guztian zehar eta ebaluaketa gehiengo behaketaren bidez izan da. Jarduera bakoitzean nire praktikaldiaren tutorearen eta nire behaketaren bidez joan izan gara ebaluatzen ikasleek lortzen zuten ikaskuntza. Baina, hala ere, autoebaluazio bat eta azterketa bat pasa zaie ikasleei ebaluazio moduan.

Autoebaluazioa ikasleek burutu dute, bakoitzak haren gaitasun eta egoeraren arabera, autoebaluazio mota bat izan du. Alegia, ikasle guztiak galdera berdinak zituzten baina galderak planteatzeko modua (marrazki bidez, letra handiz, letra txikiz, etab.) desberdina izan da ikaslearen gaitasunen arabera.

Autoebaluazio honetan, ikasleen motibazioa eta proiektuaren inguruko iritzia bildu ahal izan da eta proiektu amaieran egin da. Bertan, 6 galdera planteatu ziren ikasleei eta bakoitzak haren kabuz erantzun zuen. Ondoren, autoebaluaziotik ateratako emaitzak bildu eta ondorioak atera ahal izan ditugu.

Honez gain, esan bezala, azterketa bat egin diegu ikasleei ebaluazio gisa. Azterketa hau kahoot bat izan da, bertan, 10 galdera proposatu zaizkie ikasleei proiektu guztian zehar landuriko edukien inguruan. Kahoot hau egitea izan da proiektuan egindako azken jarduera eta honekin amaitutzat eman da.

Azterketa honen bidez ez dira ikasleen interesak eta iritzia aztertu aurreko ebaluazioan bezala baizik eta ikasleek proiektuan zehar ikasitakoa aztertu da. Modu honetan, proiektuaren helburuak ea bete diren eta ikasleen ikaskuntza esanguratsua izan den ikusi ahal izateko.

Beraz, laburbilduz, proiektuan zehar hiru ebaluazio nagusi identifika daitezke: behaketa bidezko ebaluazioa (proiektu guztian zehar egindako jardueretan izandakoa), ikasleen autoebaluazioa (proiektu amaieran egindakoa motibazioa eta ikasleen iritzia aztertzeko) eta irakaslearen ebaluazioa, azterketa (ikasleen ikaskuntza nolakoa izan den baloratzeko).

d. EMAITZAK

Proiektuko emaitzei dagokionez, oso positiboak izan dira. Ikasle guztiak ezarritako helburuak lortu dituzte eta esan daiteke landuriko gaiak ongi menperatzen dituztela.

Bururiko jarduera guztiak arazorik gabe amaitu ahal izan dituzte ikasle guztiak, bakoitza haren erritmoa eta beharrezko egokitzapenak eginez, baina guztiak amaitu dituzte. Gainera, jarduera gehienak (salbuespenak-salbuespen) oso gustokoak izan dituzte eta motibatuak egon dira saioetan.

Egia da saio batzuk zailagoak izan direla eta haien arreta galdu egin dela, baina orokorrean ez da hori gertatu.

Amaitzeko, proiektuaren fase bakoitzaren amaieran egindako jardueretan argi ikusi da ikasleek lorturiko jakintzak eta edukien barneraketa, beraz oso positiboak izan proiektua.

Emaitza hauek lortu eta ikusi ahal izan ditugu hiru bide nagusien bidez: behaketa zuzena, ikasleen autoebaluazioa eta amaierako azterketa. Ebaluazioaren atalean azaldu den bezala, proiektuaren ebaluazioa hiru atal nagusi horien bidez egin izan da.

Behaketari dagokionez, egunerokotasunean egindako jardueretan irakaslearen eta nire behaketa izan da ebaluazio bide nagusia. Gelan egindako lana behatuz ikusi ahal izan

dugu proiektuaren ikaskuntza egokia ematen ari zela ikasleengan. Proiektuan zehar buruturiko jardueretan, ikusi ahal izan dugu ikasleen %90ak baino gehiago ongi barneratzen zituela edukiak eta proiektu bidezko metodologia esanguratsua izaten ari zela. Gainontzeko %10 horrerik dagokionez, ikasle bat proiektu erdian etorri zen eta ondorioz, ez zuen proiektuaren hari ondo jarraitzeko aukerarik izan. Ikasle horrek hizkuntza arazoak eta irakurketa-idazketa prozesuan arazoak zituelako. %10eko gainontzeko ikasleek, batzuetan egun txarra izaten zuten edota arreta falta arrazoi nagusia izaten zen.

Ikasleen autoebaluazioari dagokionez, honen bidez frogatu ahal izan dugu proiektu bidezko ikaskuntzak ikasleen motibazioan eragin positiboa duela eta haien motibazioa handitu egiten dela metodologia hau jarraituz.

Autoebaluazio horretan 6 galdera azaltzen ziren zeinetan proiektuaren inguruko galdera labur batzuk erantzun behar zituzten ikasleek, motibazioarekin zerikusia zutenak noski. Galdera horien erantzunaren arabera, ikasleek, proiektuari nota moduko bat ezartzen zioten, 0tik 10erako eskalako.

24 ikasleetatik batek soilik (proiektuaren erdialdean etorritako ikasle etorkina) baloratu du proiektua 0 eta 2 bitarteko notarekin. Alegia, %4,167ak. 7 ikasleek proiektua 7 eta 8 bitarteko notarekin baloratu egin dute, hau da, %29,167ak. Azkenik, gainontzeko 16 ikasleek proiektua 9 eta 10 bitarteko notarekin baloratu dute, %66,67ak hain zuzen ere. Beraz, orokorrean, ikasleen %95,83ak proiektua oso positiboki baloratu egin dute eta aipatu dute metodologia honen bidez ikaskuntza esanguratsuagoa eta motibagarriagoa dela.

Ikasleek egindako amaierako azterketari dagokionez, honen bidez frogatu ahal izan dugu proiektuaren bidez lortu nahi genituen edukien barneraketa egokia eta esanguratsua izan den ikasleentzat.

Azterketa horretan, kahoot moduan egindakoa, 10 galdera azaltzen ziren proiektu osoan zehar emandako edukien inguruan. Bertan, galderari erantzun eta amaieran nota bat azaltzen zen, 0tik 10rako eskalako.

24 ikasleetatik batek soilik (proiektuaren erdialdean etorritako ikasle etorkina) 2 bat atera du eta ondorioz, ikasleen %4,167ak 2 bat atera du azterketan. Ikasle batek 6 bat atera du, beraz, ikasleen %4,167ak 6ko nota atera du azterketan. 5 ikasleek, 7 bat atera dute azterketan. Alegia, ikasleen %20,83ak 7 bat atera du. Beste 5 ikasleek, 8 bat atera dute eta ondorioz, ikasleen %20,83ak 8 bat atera du. 3 ikasleek, ikasleen %12,5ak, 9 bat atera dute azterketan. Azkenik, gainontzeko 9 ikasleek, ikasleen %37,5ak, galdera guztiak zuzen erantzun eta 10 bat atera dute.

Beraz, esan daiteke, ikasleen %4,167ak soilik ez duela gainditu azterketa eta ondorioz, %95,83ak gainditu dutela. Orduan, esan daiteke, proiektuaren bidezko ikaskuntzaren bidez, ikasleek edukien barneraketa egokia izan dutela eta oso positiboa izan direla lorturiko emaitzak.

e. HAUSNARKETA

Oro har, metodologia aktiboen aplikazioa hezkuntzan ezinbestekoa ikusten dut ikasleen formakuntzarako. Gainera, lan honetan ikusi eta gaien sakondu ahal izan den bezala, Proiektuen Bidezko Ikaskuntza erabiltzea oso baliagarria dela ikasleen ikaskuntza prozesurako begi bistakoa da.

Metodologia hau ibiltzeak, ikasle kooperatibo, kritiko eta autonomoak sustatzeaz gain, gaur egun sortzen diren erronkak erantzuteko gai da. Honez gain, aniztasunari erantzuten dio eta ikasle bakoitzaren beharretara moldatzen da.

Curriculumari dagokionez, Proiektu Bidezko Ikaskuntzak, bertan azaltzen diren irizpide eta edukiak betetzeko gai dela erakusten du.

Hezkuntza tradizionaletik at joateaz gain, metodologia hauek ikaslearen motibazioa eta sormena sustatzen dute, ikaslea bera protagonista bilakatzen duelarik. Aipaturiko ezaugarri eta onura guzti hauek isladatu izan ahal dira aurretik aipaturiko proiektuan.

Proiektu guztian zehar, orokorrean, ikasleak motibatuak, protagonistak eta partehartzaileak izan dira. Haien ikaskuntza handituz joan da proiektua aurrera zorian heinean eta amaierako produktuan landuriko konpetentzietan ikusi ahal izan da. Modu honetan, metodologia honen baliagarritasuna konfirmatuz.

Aipaturiko guzti horrez gain, azpimarratzekoa PBIan irakasleak duen rola. Irakaslearen papera gidatzaile modukoa eta bidelagun modukoa da. Ikasleari haren bidea egiten utziz baina behar izanez gero beharrezko laguntza emanez. Gainera, gisa honetako proiektuetan irakaslearen funtzio nagusietako bat izanik, ikasle bakoitzaren behar eta gaitasunetara moldatzea eginkizunak.

Azkenik, Proiektu Bidezko Ikaskuntza eta metodologia aktiboen abantailak bat, edozein hezkuntza sistema eta egoeratarara moldagarriak direla da. Metodologia hauen zenbait alderdi edozein hezkuntza sistemak erabil dezake moldaketak eginez testuinguru eta bertako beharretara egokituz. Azken finean, edozein hezkuntza sistema dela ere, ikasleak protagonistak izan daitezke, ikasleen beharretara eta aniztasunara moldatu daiteke, irakasleak gida bezala jardun dezake eta ikaskuntza prozesua eraginkorra eta motibagarria izan daiteke.

f. ONDORIOAK

Ondorioz, esan dezakegu, Proiektu Bidezko Metodologiaren bidez giza gorputza lantzea Lehen Hezkuntzako ikasleekin oso baliagarria eta eraginkorra dela. Ikasleekin aurrera eramandako praktikaren emaitzetan islada daiteken moduan, ikasleek proposaturiko edukiak ongi barneratu eta sakonki landu dituzte metodo honen bidez.

Motibazioari dagokionez, ikusi ahal izan da Proiektu Bidezko Ikaskuntzaren bidez ikasleen motibazioa handitu egiten dela. Ikasleak partehartzaileagoak bilakatzen dira, talde lanean gehiago parte hartzen dute, gaiaren inguruko motibazioa eta ikasteko grina erakusten dute eta lan egiteko gogo nabariagoa da. Guzti hau, aukeraturiko gaia ikasleen

gustokoa izanez gero eta proiektua haientzat erakargarria izanez gero, noski. Kasu honetan, ikasleei izugarritzko interesa piztu die giza gorputzaren gaiak eta ondorioz, ikertzailegoak eta partehartzaileagoak bilakatu diral, ikasteko gogoia handitu zaie autoebaluazioan ikusi ahal izan den bezala. Beraz, esan ahal daiteke, ikasleen motibazioa handitu egiten dela proiektuekin lan eginez.

Honez gain, nik egindako praktikaldian ikusi ahal izan dudana bezala, proiektu bat aurrera eramatea ikasleekin eragiten du haien ikasketa esanguratsuagoa izatea. Alegia, alderatu ahal izan ditut praktikaldian proiektua eramandako ikasgaien landuriko edukien barneraketa eta beste ikasgai batzuetan landuriko edukien barneraketa eta desberdintasuna handia da. Proiektuan zehar landuriko edukiak, proiektu amaieran, ikasle guztiek edo gehiengoek barneraturik zituzten, azterketan ikusi ahal izan den bezala, beste ikasgai batzuetan aldiz, ez. Ondorioz, esan daiteke, Proiektu Bidezko Ikaskuntzak ikasleen formakuntzarako eta ikaskuntza prozesurako garrantzitsua dela.

Hasiera batean zalantzak nituen ea ikasleek, gainera lehenengo mailakoak izanik, Proiektu Bidezko Ikaskuntza menderatu ahalko zuten. Azken finean, oraindik ere txikiak dira eta irakurketa idazketa prozesuan murgiltzen hasi berriak dira. Oraindik ere ez dira oso autonomoak eta agian proiektu baten haria jarraitzea zaila izango zen. Baina ikusi ahal izan da ezetz. Ikasleek ezarritako erronkak igarotzen joan dira jardueraz jarduera eta esan bezala lehenago, emandako ikaskuntza oso positiboa izan da. Beraz, esan daiteke ikasleak, nahiz txikiagoak izan, pres daudela proiektu bidezko ikaskuntza aurrera eramatea.

Aurrekoan aipaturikoaren harira, ikasleak gai dira proiektu baten prozedura aurrera eramateko beti ere haien interesekoa bada eta proiektuaren faseen arabera. Azken finean, proiektu baten planteamendua eta garatzeko modua oso garrantzitsua da ikasleen interesa mantendu ahal izateko eta proiektuarekin konektatu ahal izateko.

Gainera, proiektu hasieran ezarritako helburuak lortu direla esan daiteke. Ikasle guztiek landuriko edukiak menperatu eta ikaskuntza prozesu egokia izan dute. Ebaluazioa jarraia izanik, alegia, amaierako produktua soilik ebaluatzeaz gain, proiektu guztian zehar landutakoa ebaluatzeak, autoebaluazioak eta azterketak lagundu izan du ikasle bakoitzaren aurrerapena eta garapena ikusteko. Ondorioz, ebaluazio jarrai batek ikasleen ikaskuntza prozesuaren garapenaren inguruko informazio gehigo emango digu amaierako ebaluazio batek baino.

Azkenik, proiektua egiteko aurreikusitako denbora ez da bete. Proiektua hilabete baten barru egiteko aurreikusirik zegoen eta azkenean ia-ia bi hilabeteetan egin da. Beraz, ondoriozta daiteke Proiektu Bidezko Ikaskuntzan data bat ezartzea eta denbora bat zehaztea ongi dagoela denbora tarte bat izateko, baina malgua izan behar dela. Azken finean, proiektu baten prozesuan sor daitezken ezusteko, gertaera, jarduera berriak, aurreikusitako jarduera batzuk ez egitea, ikasleen beharrak, ikasleen garapena, etab.en arabera, proiektua egunetik eguera moldaketak izateko pres egon behar da. Beraz, ondoriozta dezakegu Proiektu Bidezko Ikaskuntzan, denbora malgutasuna eta aldaketa malgutasuna beharrezkoa dela.

4. ERREFERENTZIAK

Gudiño Kieffer, E. (1982). El cuerpo humano.

Gilpérez, M. D. (2009). Proyecto de trabajo el cuerpo humano. *Quaderns digitals: Revista de Nuevas Tecnologías y Sociedad*, (59), 12.

Iribertegui Iñurrieta, A. (2014). Mugimenduaren sorreraren ikaskuntza IKT eta Proiektuaren Bidezko metodologiaren bitartez.

Goñi Palacios, E., Donaire, I., & Álvarez Uria, A. (2018). Gorputza eta identitatearen eraikuntza Haur Hezkuntzako hezitzaileen ikuspegitik.

Entralgo, P. L. (1989). El cuerpo humano. *Teoría actual. Madrid: Espasa*.

Díaz, V. M., & Asencio, V. P. M. (2018). Trabajar el cuerpo humano con realidad aumentada en educación infantil. *Revista Tecnología, Ciencia y Educación*, 148-158.

Martínez, S. G., Tejedor, R. E., & Arenaza, A. M. (2022). *CUADERNOS DE PEDAGOGÍA IGNACIANA UNIVERSITARIA: Aprendizaje basado en proyectos*. UNIJES: Universidades Jesuitas.

Hurtado, M. E. Z. (2019). El Aprendizaje Basado en Proyectos. *CIVINEDU 2019*, 320.

Rojas, J. A. C. (2010). Aprendizaje basado en proyectos, del paradigma a los resultados. *I+ T+ C-Investigación, Tecnología y Ciencia*, 1(4), 60-66.

De Albéniz-Iturriaga, A., Pedrero, E., & Molina, B. (2021). Iniciación al Aprendizaje Basado en Proyectos.

Rodríguez-Sandoval, E., Vargas-Solano, É. M., & Luna-Cortés, J. (2010). Evaluación de la estrategia "aprendizaje basado en proyectos". *Educación y educadores*, 13(1), 13-25.

González, M. A. M. (2018). Aprendizaje basado en proyectos: de la teoría a la praxis. *UNIVERSCIENCIA*.

Sabaté, J. G., & García, M. V. (2012). Hablando sobre aprendizaje basado en proyectos con Júlia. *REDU. Revista de Docencia Universitaria*, 10(3), 125-151.

Molina-Carmona, R., Villagrà-Arnedo, C. J., Gallego-Durán, F. J., & Llorens Largo, F. (2020). Convencido del Aprendizaje Basado en Proyectos, ¿por dónde empiezo?.

Barrera Arcaya, F., Venegas-Muggli, J. I., & Ibacache Plaza, L. (2022). El efecto del Aprendizaje Basado en Proyectos en el rendimiento académico de los estudiantes. *Revista de estudios y experiencias en educación*, 21(46), 277-291.

Pérez, I. B. (2017). POI proiektuetan oinarritutako ikaskuntza. *Arbela: Hezkuntza aldizkaria*, (49), 21-23.

Nazabal Zaratiegui, M. (2014). Proiektu bidezko lanaren aplikazioa hizkuntza irakasteko Haur Hezkuntzan.

Rodríguez Minguito, A. (2020). Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan: ikaskuntza esanguratsura hurbilketa.

Munarriz Barrena, N. (2013). Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza: Australopitecustarrak.

Krajcik, J. S., & Blumenfeld, P. C. (2006). *Project-based learning*(pp. 317-34). na.

Larmer, J., & Mergendoller, J. R. (2010). Seven essentials for project-based learning. *Educational leadership*, 68(1), 34-37.

Fleming, D. S. (2000). *A Teacher's Guide to Project-Based Learning*. Scarecrow Education, Attn: Sales Department, 15200 NBN Way, PO Box 191, Blue Ridge Summit, PA 17214.

Galeana, L. (2016). Aprendizaje basado en proyectos. Lourdes Galeana.

Rodríguez, I. R., & Vílchez, J. G. (2015). El aprendizaje basado en proyectos: un constante desafío. *Innovación educativa*, (25).




Cobo Gonzales, G., & Valdivia Cañotte, S. M. (2017). Aprendizaje basado en proyectos.

Pérez, A., E. Fonseca, and B. Lucas. "Iniciación al Aprendizaje Basado en Proyectos. Claves para su implementación." (2021).

5. ERANSKINAK

- Ikasleen autoebaluazioa eta emaitzak

Irakurketa-idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleentzako autoebaluazioa:

			
	2p	1p	0p
ZER MODUZ PASA DUT PROIEKTUA EGITEN? (2p)			
ZENBAT GUSTATU ZAIT PROIEKTUA EGITEA? (2p)			
NORMALEAN BAINO GEHIAGO GUSTATU ZAIZU MODU HONETAN LAN EGITEA? (2p)			
USTE DUZU BETIRAKO IZANGO DITUZULA ESKURATURIKO IKASKUNTZA HAUEK? (2p)			
ERRAZA EGIN ZAIZU PROIEKTUA EGITEA? (1p)			
PROIEKTU GEHIAGO EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKE? (1p)			

1. Ikaslea 10p
2. Ikaslea 10p
3. Ikaslea -
4. Ikaslea 9p
5. Ikaslea 10p
6. Ikaslea 9p

Irakurketa-idazketa prozesuan laguntza pixka bat behar duten ikasleentzako autoebaluazioa:

	2p	1p	0p
ZER MODUZ PASA DUT PROIEKTUA EGITEN? (2p)	OSO ONGI PASA DUT	ONGI PASA DUT	EZ DUT ONGI PASA
ZENBAT GUSTATU ZAIT PROIEKTUA EGITEA? (2p)	ASKO GUSTATU ZAIT	GUSTATU ZAIT	EZ ZAIT GUSTATU
NORMALEAN BAINO GEHIAGO GUSTATU ZAIZU MODU HONETAN LAN EGITEA? (2p)	BAI	BERDIN ZAIT	EZ
USTE DUZU BETIRAKO IZANGO DITUZULA ESKURATURIKO IKASKUNTZA HAUEK? (2p)	BAI	EZ DAKIT	EZ
ERRAZA EGIN ZAIZU PROIEKTUA EGITEA? (1p)	OSO ERRAZA	ERRAZA	ZAILA
PROIEKTU GEHIAGO EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKE? (1p)	BAI	BERDIN ZAIT	EZ

1. Ikaslea 7p
2. Ikaslea 7p
3. Ikaslea 10p
4. Ikaslea 10p
5. Ikaslea 10p
6. Ikaslea 8p
7. Ikaslea 10p

Irakurketa-idazketa prozesuan aurreratuak dauden ikasleentzako autoebaluazioa:

	2p	1p	0p
Zer moduz pasa dut proiektua egiten?	Oso ongi pasa dut proiektua egiten	Ongi pasa dut proiektua egiten	Ez dut ongi pasa proiektua egiten

Zenbat gustatu zait proiektua egitea?	Asko gustatu zait proiektua egitea	Gustatu zait proiektua egitea	Ez zait gustatu proiektua egitea
Normalean baino gehiago gustatu zaizu honetan egitea?	Bai, normalean baino gehiago gustatu zait	Berdin zait modu honetan edo normalean bezala lan egitea	Ez zait normalean baino gehiago gustatu modu honetan lan egitea
USTE DUZU BETIRAKO IZANGO DITUZULA ESKURATURIKO IKASKUNTZA HAUEK?	Bai, betirako ikaskuntza izango dut	Ez dakit	Ez, eduki askotaz ez naiz gogoratzen
ERRAZA EGIN ZAIZU PROIEKTUA EGITEA?	Bai, oso erraza egin zait proiektua egitea	Bai, erraza egin zait proiektua egitea	Ez, ez zait erraza egin proiektua egitea
PROIEKTU GEHIAGO EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?	Bai, proiektu gehiago egin nahi ditut	Berdin zait proiektu gehiago egin ala ez	Ez, ez ditut proiektu gehiago egin nahi

1. Ikaslea 10p
2. Ikaslea 9p
3. Ikaslea 8p
4. Ikaslea 7p
5. Ikaslea 10p
6. Ikaslea 10p
7. Ikaslea 10p
8. Ikaslea 9p
9. Ikaslea 8p
10. Ikaslea 10p
11. Ikaslea 7p

Autoebaluazioen emaitzak:

Ateratako puntuak	Ikasle kopurua
0-2 puntu	1
3-4 puntu	0
5-6 puntu	0
7-8 puntu	7
9-10 puntu	16

Ateratako puntuak	Portzentaiak
0-2 puntu	%4,167
7-8 puntu	%29,167
9-10 puntu	%66,67

- Azterketa (kahoot-a) eta emaitzak

Kahoot-eko galderak eta erantzunak:

1. Zeintzuk dira 3 gorputz atal nagusiak?
 - a. Enborra
 - b. Gorputz adarrak
 - c. Burua
 - d. Lepoa

2. Gorputza kirola eginez eta osasuntsu janez zaintzen da
 - a. Gezurra
 - b. Egia

3. Zeintzuk dira gorputz adarrak?
 - a. Besoak
 - b. Burua
 - c. Hankak
 - d. Ilea

4. Bihotza gorputzaren barruko atal bat da?
 - a. Egia
 - b. Gezurra

5. 6 zentzumen daude
 - a. Egia
 - b. Gezurra

6. Zeintzuk dira zentzumenak?
 - a. Ikusmena
 - b. Entzumena
 - c. Dastamena
 - d. Orientazioa

7. Ikusmena belarriekin garatzen da
 - a. Egia
 - b. Gezurra

8. Zentzumen ibilaldian, dastamenean, honako zapore hauek zeuden:
- Gazia
 - Gozoa
 - Garratza
 - Mingotsa
9. Errezeta bat egiteko ez dira osagaiak behar
- Egia
 - Gezurra
10. Edozein errezeta egiteko ezinbestekoa da...
- Osagaiak
 - Gatza
 - Labea
 - Tresna egokiak

Azterketaren emaitzak:

NOTAK	Ikasle kopurua	Portzentaia (%)
0	0	%0
1	0	%0
2	1	%4,167
3	0	%0
4	0	%0
5	0	%0
6	1	%4,167
7	5	%20,83
8	5	%20,83
9	3	%12,5
10	9	%37,5

1.ikaslea	9
2.ikaslea	10
3.ikaslea	10
4.ikaslea	10
5.ikaslea	10
6.ikaslea	8
7.ikaslea	9

8.ikaslea	8
9.ikaslea	7
10.ikaslea	6
11.ikaslea	8
12.ikaslea	8
13.ikaslea	7
14.ikaslea	7
15.ikaslea	2
16.ikaslea	7
17.ikaslea	7
18.ikaslea	10
19.ikaslea	10
20.ikaslea	8
21.ikaslea	10
22.ikaslea	9
23.ikaslea	10
24.ikaslea	10

- Ateratako argazkiak eta erabilitako fitxak













Ni honelakoa naiz



Osatu ondorengo fitxa hau.

Argazki
atera berria

Nire izena _____
_____ da.

_____ zentimetro ditut.

_____ kilo ditut.

Nire begiak _____
_____ dira.

Nire ilea _____
_____ da.


**AURPEGIAREN
ATALAK**




IZENA:.....



HORTZA



AHOA



BEGIA

SUDURRA




BELARRRIA



ILEA



BEKAJINA




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bingoa




A crossword puzzle grid with the following letters and illustrations:

- Top-left vertical word: **B** (2), , **S** (4),
- Top-right vertical word: (1), , **D** (3), , **R** (5),
- Horizontal word (left): (4), **U** (2), , , **G** (4),
- Vertical word (middle): (2), (4), **B** (5), ,
- Horizontal word (middle): (5), **B** (2), (4), **K** (4),
- Vertical word (bottom): (7), **H** (2),

Illustrations include: a hand, a nose, a stomach, an eye, a hand, and a mouth.

3) Marrazkia begiratu eta idatzi dagokion gorputz atala:



OINAK

ILEA

BESOA

HANKA

SORBALDA

ESKUA

BELAUNA

GORPUTZA

1) Elkartu irudiak eta izenak:



LEPOA



HANKA



ILEA




AHOA

PROIEKTUA



ZER JANGO
DUGU GURE
HAMAĪKETAKOAN?

- BEHA IEZAI EZU ELIKAGAIEN
PIRAMIDEAN AGERTZEN
DIREN ELIKAGAI EI.



E, ZER DA
ELIKAGAIEN
PIRAMIDEA?

NOLA ELIKATU BEHAR
DUGU OSASUNTSU
EGOTEKO?



ORAIN BADA KIZU
TALDE DESBERDINETAKO
JANARIAK JAN
BEHAR DITUZULA.



EGUNEKO MENUA

1. platerak

2. platerak

Postreak

OGIA ETA URA BARNE!



▶ BIL ZAITEZTE BI EDO HIRU LAGUN ETA ASMATU
GUSTUKO MENU OREKATUA.



4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!
 - Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa

	ALUA
	ATZAPARRAK
	AZAZKALAK
	BEHATZAK


4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!
 - Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa




4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa







4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa

	IZTERRA
	LEPOA
	OINA
	ORKATILA





4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa

	ORPOA
	SABELA
	SORBALDA
	TITIAK

4.2. Gaiaren lanketa

> Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

- Gorputz-atalak: Gorputz-atalen bikote-jolasa

